

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2026ko martxoak 13 • 1389 zenbakia

GUTXIENEKOA NAHIKOA EZ DENEAN

T. Etxebarria, 1
943 20 42 99

Gehien
maite
duzuna
barestu!
%50eko
DESKONTUA!

BIZI ASEGURUA

Informazio gehiago:
eukiseguros.com

EUKI

ASEGURU ARTEKARITZA

Gure familia beti
barestuta egongo
den **garantia**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental


Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



www.etakitto.eus



Sorabox taldearen atek ireki dizkigute Ainara Torvisco eta Jokin Merino boxeolariak. Kirol hori hobeto ulertzen lagundu digute, eta begibistakoa da sentitzen duten pasoa. Eibarren eta Debabarrean asko hazi den kirola da, eta bertan aritzeko gonbitea egin digute.



eta kitto!
euskara elkarteak



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALA

Iruñe Jaio

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Martxoaren 24an egingo du ...eta kitto! Euskara Elkarateak urteko batzarra

Aste Santuaren aurretik, martxoaren 24an, egingo du Urteko Batzar Nagusia ...eta kitto! Euskara Elkarateak bere egoitzan (Urkizu 11, solairuarte). Lehenengo deialdia 19:00etan izango da; bazkideen erditik gora ez bada bertaratzeko, ordu erdi geroago egingo da Batzarra, hau da, 19:30ean. Bazkide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta. Gai-zerrenda honako hau izango da: 2025eko gestio-balantzea; 2026rako egitasmoak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak, eta zuzendaritza berriaren hautaketa eta funtzionamendua.

...eta kitto! Euskara Elkarateak

Datorren astean ez da alerik izango

San Jose zubia dela-eta, martxoaren 20an ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 27an, hurrengo barixakuan, jasoko duzue betikoari jarraituz.

Erredakzioa

Hortik esanak



Orain bizi duguna teknokraziaren distopia bat da. Pentsatu dute adimen artifizialarekin eguraldi iragarpenak egitea. Ederki. Bada, nik desafio egiten diet: egin dezatela iragarpen bat adimen artifizialarekin, eta beste bat adimen naturalarekin; ea zer gertatzen den. Eguraldi iragarleen formakuntza falta da arazoa. Lanpostura iristen direnean, aurretik lanpostu horretan zegoena joana da jada. Lanpostu horrek hilabeteak daramatza bete gabe. Inork ez dio iritsi berriari harrera egiten. Lehengoa ez dago, eta lankide asko telelanean ari dira. Askotan, mahai huts batean eta bakar-bakarrik sentitzen da. Inork ez dio ezer esplikatzeko. Horregatik, huts asko formakuntza faltarengatik gertatzen dira, ez datu faltarengatik. Datuak interpretatzen ez jakiteagatik. Datuek, gainera, ez dute esanahi berbera toki guztietan.

MARGARITA MARTIN, metereologoa

Jendeak badaki ezin duela alokairuan baldintza duinetan bizi, alokairuan bizitzea bizitzea egonkorra izatea edo gutxieneko ongizatea lortzea eragozten duen errentismoaren gatibu izatea baita. Orduan, alokairutik ihes egin behar da, eta jabetza bakarrik geratzen da. Baina horrek ez du esan nahi jabetza denik irtenbidea. Esan nahi duena da ez dugula beste irteerarik eraiki. Jabetza, probatu eta porrot egin zuen irteera bat da. Desberdintasuna sortzen du, espekulazioa sortzen du, eta 2000 urteetako dinamiken antzeko dinamika martxan jartzen ditu berriro. Eta, gainera, gaur egun bada elementu erantsi bat: eskuin muturra zerumuga hori ari da eztabaidatzen.

JAVIER GIL, CSIC-eko ikertzailea eta soziologoa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

POL-POL → Iturritik irtetean urak ateratzen duen hotsaren onomatopeia. “Egarrixak ittotzen gengozala han entzun genduan ira artian ezkutauta zeguan itturri baten pol-pol hots ederra!”.

Jatekoak irakitean ateratzen duen hotsa. “Patatak pol-pol dagoz eta laster sua amatau”.

POLIKI → Apurka, polito. “Giltzapian sartu nabe poliki poliki”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 13	ZAPATUA 21
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)	EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 14	DOMEKA 22
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
DOMEKA 15	ASTELEHENA 23
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
ASTELEHENA 16	MARTITZENA 24
EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)	EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
MARTITZENA 17	EGUAZTENA 25
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 11)	EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
EGUAZTENA 18	EGUENA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)	EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
EGUENA 19	BARIXAKUA 27
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	EGUNEZ Barandela (Ziriako Agirre, 4)
BARIXAKUA 20	
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	GAUEZ BETI , 2026an, Elortza (Juan Gisasola, 18)

Hildakoak

- **Paulino Diez Santamaria "Pirri"**. 78 urte. 2026-03-04.
- **Miguel Espilla Astigarraga**. 80 urte. 2026-03-04.
- **Itziar Lopez Ulazia**. 80 urte. 2026-03-04.
- **Ana Mari Astigarraga Arriola**. 97 urte. 2026-03-05.
- **M.ª Encarnacion Gonzalez Murillo "Encarni"**. 81 urte. 2026-03-05.
- **Jon Orgambide Irazabal**. 76 urte. 2026-03-06.
- **Moises Martinez Fuerte**. 61 urte. 2026-03-08.
- **Mari Jose Lopez Verdes**. 64 urte. 2026-03-09.
- **Irene Mendizabal Azkarate**. 93 urte. 2026-03-09
- **Peio Ituarte Eizaguirre**. 69 urte. 2026-03-10.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



XVI. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka egingo da martxoaren 21ean Errebal Plazan

S.H. Eibarko Udalak eta Dekolore elkarteak antolatuta, martxoaren 21ean izango da XVI. Lore, Landare eta Zuhaitz Azoka, Errebal plazan, 10:00etatik 14:30era. Azokak ekoizleak eta kontsumitzaileak elkartzea eta landare eta loreen kultura zabaltzea ditu helburu.

Gipuzkoa eta Nafarroa osoko toki ezberdinetako 12 ekoizle eta artisauk haien produktuak jarriko dituzte salgai. Hainbat produktu eskainiko dira: lore eta landare naturalak (fruituak, arbolondoak,

barietate ornamentalak, barietate garaikideak, landare aromati-koak, kaktusak eta sukulentak), hazi ekologikoak, kosmetika naturaleko produktuak, eta lore lehorrak erabilia egindako eskulanak eta bitxi artisauak, besteak beste. Haurrentzako tailer-rrak ere antolatu dira: 11:30etik 12:30era lore lehorrak erabilia marko-liburuak egingo dituzte, eta 12:30etik 13:30era landare bat etxera eramateko eta zaintzeko tailerra izango da.



Tuper solidarioa egingo da bihar Errebalen, Zaporeak erronkarekin amaitzeko

S.H. Zaporeak Debabarrena erronkari amaiera emateko, bihar (zapatua, 14) tuper solidarioa egingo da, Eibarren, Errebal Plazan, 12:30etik 15:00etara. Menua oirlaskoa arrozarekin eta fruta ale bat izango da, 5 euroko prezioan. Gainera, artelanak eta afariak zozketatuko dira, eta Eibarko talde ezberdinen emanaldiak ere egongo dira (Kaleetan Kantuz taldeak eta Untzaga gizarte etxeko abesbatzak kantatuko dute, eta Kubantzari taldeak salsa dantzatuko du). Antolatzailerik ekitaldian parte hartzeko dei egin dute.



Maltzaga- Soraluze bidegorriaren lanak 2027an hastea aurreikusten du Aldundiak

S.H. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Sailak datozen asteetan lizitatuko du Maltzaga eta Soraluze arteko bidegorriaren proiektua idaztea. Hala iragarri dute aste honetan Jose Ignacio Asensio Jasangarritasuneko diputatuak, Jon Iraola Eibarko alkateak eta Unai Larreategi Soraluzeko alkateak egindako agerraldian. Asensioaren arabera,

proiektuak Debabarrena eta Debagoiena eskualdeen arteko behin betiko lotura estrategiko eta segurua ahalbidetuko du. Proiektuak bidegorriaren behin betiko ibilbidea, epeak eta egikaritze-aurrekontua zehaztuko ditu. Jasangarritasun Sailak proiektuaren idazketa aurtan amaitzeko asmoa du, eta lanak 2027an hastea aurreikusten da.

Palestinaren aldeko manifestazioa hilaren 22an

S.H. Eibar Palestina Herri Ekinen antolatuta, Palestinaren askatasunaren aldeko manifestazioa egingo da martxoaren 22an (domeka), 12:00etan Untzagatik abiatuta.



Basalgoko proiektuaren ondorioak salatu dituzte Topinburun

S.H. Martxoaren 7an, 200 herritar baino gehiagok parte hartu zuten Basalgoko proiektu eolikoaren aurkako mendi martxan. Ekitaldia Mendiak Bizirik-ek antolatu zuen, Korrika kulturalaren baitan eta, eguraldi txarra izan arren, Debarreneko hainbat udalerritatik – Eibar, Bergara, Soraluze, Elgeta eta Elgoibar – abiatu ziren herritarrek, Topinburuko tontorrean elkartu eta proiektua salatzeke. Proiektuak zuzenean kaltetutako hainbat

baserritar ere izan ziren parte-hartzaileen artean. Ibilbidean zehar, parte-hartzaileek Basalgoko parke eolikoaren proiektuak aurreikusten dituen aerosorgailuen eta bestelako azpiegituren kokaguneak ezagutzeke aukera izan zuten. Proiektuaren arabera, guztira sei aerosorgailu eraikitzea aurreikusten da, eta horietako bat Topinburun bertan kokatuko litzateke. Behin tontorrean, aerosorgailuetako batek izango lukeen tamaina irudikatu zuten modu

sinbolikoan. Topinburun egindako geldialdian, Manex Arzuagak – Eibarko Baso Biziak taldeko eta Eibarko Mendiak Bizirik plataformako kideak – azaldu zituen proiektuak eragingo litzuzkeen kalteen inguruko xehetasunak. Gogorarazi zutenez, abenduan 6.282 alegazio aurkeztu zituzten egitasmoaren aurka, eta oraindik erantzunaren zain daude.

Bestalde, plataformak jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin duela haien eskaera, eta, ondorioz, Eibarko Mendiak Bizirikeko ordezkariak agerraldia egingo dute Aldundiko Jasangarritasun Batzordean martxoko azken astean.

Lore, Landare eta Zuhaitz XVI. Azoka

Ordua: 10:00 - 14:30
11:30 Haurrentzako tailerrak

Martxoak 21

Eibarko Errebal Plazan



Uni Encounter topaketak hiru egunetarako egitarau zabala eskainiko du

Martxoaren 20tik 22ra bitartean ospatuko da Uni Encounter, informatika eta teknologiaren inguruko topaketa, ekitaldiaren antolatzaile nagusia den Uni Eibar-Ermua hezkuntza-zentroan. Alesander Robleño digitalizazioan, esports-etan eta entretenimendu digitalean aditua den aholkulariarekin batera antolatzen diren jardunaldiek Eibarko Udalaren laguntza jasotzen dute, eta gaur goizean egin dute aurtengo edizioaren aurkezpena, udaletxean.

SILBIA HERNANDEZ

Ekitaldi honek teknologia berriekin lotutako jardunaldi sorta bat garatzen du. Bi egunez, Eibarko unibertsitate-eremuak dibulgazio, teknika eta aisialdi izaerako jarduerak ugarituko ditu. Aurtengo edizioa martxoaren 20an, barixakua, 16:00etan hasi eta martxoaren 22an, domeka, 18:00etan amaituko da. Hiru egun horietan, informatikaren eta teknologia berrien hainbat alderdirekiko interesa duten pertsona guztientzat prestatutako jarduerak ugarituko dituzte.



Aurtengoa 21. edizioa izango da eta, beste urte batzuetan bezala, bi alderdi egongo dira: alde "serioa-go", dibulgazio-hitzaldi eta tailerrekin; eta beste alde ludikoago bat, ordenagailu, bideokontsola eta mugikor bidezko jokoak, lehiaketak eta txapelketak barne hartuko dituen. Antolatzaileen arabera, "2026ko Uni Encounter edizioak hazten jarraitu nahi du, aurreko edizioan sortutako jarduerak berrietako batzuk sendotuz, eta aldi berean berritzen eta formula eta jarduerak berriak bilatzen jarraituz".

Edizio honetako aldaketak

Uni Eibar-Ermuko ordezkariak edizio honetan izango diren hainbat aldaketa azpimarratu dituzte: "Hasteko, data-aldaketa, Aratos-teetatik San Joseko zubira pasatu da eta; horrekin batera, ekitaldiaren iraupena, aurtun bi egun baino gehiago (50 ordu) izango baitira; eta Game Erauntsia taldeko lagunek gurekin batera 'Euskal Jam3' antolatzea erabaki dutela. Berrikuntza horiek antolaketa mailan aldaketa ugari ekarri dituzte. Orain denbora gehiago egongo da txapelketak, hitzaldiak eta tailerrak egiteko, eta hainbat atal sendotuko dira".

Aurtengo UniEncounter ekitaldia barixakuan, hilak 20, 17:30ean inauguratuko da, Elesky pianista gaztearen doako kontzertuarekin, Uniko antzokian. Azaldu dutenez, "artista honen iazko edizioako kontzertuko bideoek 2 milioi bisita baino gehiago dituzte". Ondoren, Game Jam3 eta CTF Leopardy hasiko dira. Antolatzaileen berbetan, "aldi berean, hitzaldiak eta tailerrak abiatuko dira, eta gure azele-ragailu txikia ere martxan jarriko da; gauean sartzean (21:00etatik aurrera), e-sports lehiaketak, mahai-jokoak eta bestelako jarduerak hasiko dira".

Zatoz ate irekietara!

MARTXOAK 24

**AUKERARIK ONENA,
ETORKIZUNA DUENA**



otsailaren 26tik martxoaren 18ra
errigora.eus



**ESKUTIK
ESKURA
EGITEN DUGU
HERRIA**



Eskatu **Nafarroa** erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa,
arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz** eti-
ketatuta eta jatorrizko prezioan

Euskal komunitatea osatzeko HERRITU abiatu du Gure Eskuk

Testua eta argazkiak **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Barixakuan, martxoaren 6an aurkeztu zuen Gure Eskuk Herritu izeneko ekimena Eibarren, Errebalgo plaza estaliak hartu zuen ekitaldian. Bertaratu ziren herritarrei ekimenari buruzko azalpenak emateaz gain, Herritu ekimena babesten duten Eibarko pertsona ezagunez osatutako hamaikakoa ere eman zuten ezagutzera. Hori guztia Jokin Bergara bertsolariaren, Jorgen Landa abeslariaren eta Eneko Mayoral gitarraistaren laguntasunarekin, eta Irati Alvarez Gure Eskuko kide eibartarrak aurkeztuta. Ekitaldia amaitu eta, jarraian, gerturatu zirenetako askok egin zuten bat Herriturekin.

Informazio gehiago
Herritu-ren webgunean:



Euskal Herriaren burujabetza eta erabakitze esku-bidea aldarrikatzeko abiatu berri den ekimena da Herritu eta Gure Eskuk, erabakitze eskubidearen alde 2013an sortutako mugimendu herritarrak abiatu du, eta orain arteko bideari jarraituko dio: “Gure Esku ezagutzen duen orok badaki hiru zutabe nagusi defendatzeko sortu zela: Herri bat garel, Euskal Herria; herritarron garaia dela; eta guk, herritarrok, gure oraina eta etorkizuna erabaki nahi ditugula. Gure herrian, Eibarren, atxikimendu handia izan du hiru zutabe horien defentsak, herri mugimenduaren sorreratik bertatik: giza katea 2014an, herri-konsulta, bigarren giza katea, Pirinioetako bidea, iazko ekainaren 7ko mobilizazioa... egindako guztia elkarrekin egin dugu, komunitatean”.

Ekitaldian esan zuten, “aipaturiko komunitate hori herriz herri indartzeko ariketa bat da Herritu. Euskal komunitatea indartzeko

garaia da, eta horretara gatoz. Horretarako sortu da Herritu, euskal komunitatea osatzeko”.

Ekimen honek adierazpen bat du oinarri, eta bertan, erabakitze esku-bidea, burujabetzaren beharra eta herritarren eskubide guztien bermea nabarmentzen direla diote Gure Eskutik: “Horrez gain, euskal nazioaren ideia beste esparru batzuetara hedatzeko (gazteak, euskal diaspora, Euskal Herria etorri berriak...), Euskal Herria ezagun egiten duten zenbait ikurrei bultzada emateko (Euskal Herriko armarrria eta zazpi lurraldeen mapa) eta Gure Eskuren erreferentzialtasuna indartzeko ere baliagarria da Herritu”.

Ekimeneko ordezkariak azaldu digutenez, “norbanako gisa euskal herritartasuna adierazteko tresna sorta bat da Herritu. Txartelak, pin-ak eta pegatinak osatzen dute tresna hori. Eta zertan laguntzen dute tresna hauek? Txartelak, Euskal Herritarrak garel eta Euskal Herritarrok gure etorkizun po-



Eibartar asko gerturatu ziren Errebalera, eta arreta handiarekin entzun zituzten dinamika berriari buruzko azalpenak. EIBARKO GUREESKU.

litikoa libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidearen alde gaudela adierazten du; pina paparrean jantzita, txartelarekin esaten dugun komunitate hori kalean ikusgarritasuna emateko tresna da. Euskaraldiko txaparekin egin genuen antzera, komunitate bezala sendotasuna erakutsiko dugu; eta pegatina mugikorrean, kalean... nahi duzuen tokian pegatu eta, hori ere, ikusgarritasuna lortzeko tresna da”.

Baina, edozerren gainetik, Herritu ekintza bat da: “Modu kolektiboan sustatu, lortu eta erabiliko ditugulako tresna horiek. Horrela, denok batera, euskal komunitatearen indarra erakutsi eta trinkotuko dugu”. Eta herritarrek dira ekintza horren funtsezko katebegia: “Herrituren bidez, zuek lagunduko baituzue euskal komunitatea osatzen eta indartzen”. Horretarako dira euskarriak eta, horiek eskuratzeko, 10 euroko ekarpena egin beharko da (5 eurokoa, 20 urtetik behera)

Herrituren euskarriak lortzeko bideak

Ekimenarekin bat egin eta Herrituren euskarriak lortzeko hainbat bide daude: Gure Eskuk presentzia bermatuko du Euskal Herriko agendako hitzordu nagusietan (Durangoko Azoka, Korrika, ikastolen aldeko jaialdiak, euskararen aldeko bestelako ekimenak, festak, kirol ikuskizunak, kontzertuak...), eta www.herritu.eus webgunean ere eskuratu ahal izango dira Herrituren euskarriak.

Dena dela, funtsezkoa izango da tokian tokiko dinamika, eta zentzu horretan Eibarko Gure Eskuk hainbat egunetan kalean mahaia ipiniko du, nahi duenak “herritzeko” aukera izateko: gaur (martxoak 13, barixakua), 19:00etatik 21:00etara egongo dira kalean mahaiarekin eta, horrez gain, martitzenero Eibarko Klub Deportiboaren lokaletan, lehen solairuan ere egongo da ekimenera batzeko aukera, 19:30etik 21:30era.

Euskal komunitatea osatzeko eta norbanako bakoitzak harrotasunez euskal komunitate horren parte dela adierazteko sortu da Herritu dinamika



Eibarko HAMAIAKAKOA



Odei Jainaga: Jabalina jaurtiketan espezializatutako atleta. Joko olinpikoetan aritutakoa.



Enrique Montero: Usartza Txistulari Taldeko zuzendaria. Musika eskolako irakaslea.



Jurgen Landa: Abeslaria. ETB1eko "Ztanda" programan aritu zen eta geroztik bere ibilbide musikala garatu du.



Mikel Larrañaga: Eibarko lehen Alkate demokratikoa (1979-83). Gaur egun, Eibar K. E.-ren fundazioko presidenteordea.



Miren Gisasola: Mugi Panderoa taldeko abeslaria, baserritarra eta auzoetako jaien antolatzailea, irakaslea eta futbolaria.



Maider Aranberri: ...eta kitto! Euskara Elkarteko teknikaria.



Miren Hazas: Euskal dantza irakaslea, Kezka-ko dantzaria, artista plastikoa, tabernarioa, eta saltsa guztietako perrexila.



Kontxa Laspiur: Bere 101 urteetan zehar euskararen aldeko langile nekaezina. Euskaltegiko irakasle historikoa.



Aitor Gorosabel: Su Ta Gar talde eibartarreko abeslaria eta gitarra-jolea.



Oihane Sarasketa: Kirolaria, iazko Asier Cuevas lasterketako emakumezkoen arteko irabazlea. Talde feministetako kidea.



June Araujo: Eibarko gazte talde desberdinetan, eta bereziki jaien antolakuntzan inplikaturako neska gaztea.



AURREKO SAIOAN

Eskualdean praktikatzen diren zenbait kirol ezagutu eta probatu genituen: Hiru txirloak, Petanka, Molkkya eta Palet jokoa.

HURRENGO SAIOAN

Zein da eta zein herritan dago Debabarreneko tortilla pintxorik onena? Hurrengo saioan herriz herri ibiliko gara pintxoak probatzen.

ALBISTEAK

Maltzaga eta Soraluze arteko bidegorriaren proiektua idazteko lizitazioa egingo du Aldundiak.



Basalgoko proiektuak izango lituzkeen ondorioak salatu zituzten pasa den larunbatean 200 herritar inguruk Topinburun.



Mar 13

KONTZEN-TRA	GERRARIK EZ! (ERMUA PALESTINAREKIN)	19:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
MUSIK.	BIKUSTIK	21:30	DERRY TABERNA (ELGOIBAR)
MUSIK.	MIKEL GOROSABEL	20:30	ASIGOR TABERNA (SORALUZE)
BERTSO	ZERUA MOTXAILEN ATERPE	22:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)
MAGIA	MAGIA ZAPARRADA (ALAIN ZULAIKA)	20:00	KULTUR ELKARTEA (DEBA)
BERTSO	BERTSO AFARIA ANER PERITZ ETA NEREA IBARZABAL	21:30	ARRANO (DEBA)

Mar 14

EGUN	SAGARDO EGUNA	12:00	ORBE PLAZA (ERMUA)
EGUN	MOTXAILA EGUNA (IRTEERA, BAZKARIA, BERTSOAK,...)	09:00- AURRERA	HAINBAT TOKI (MENDARO)
TOPAK.	HERRI-KIROLAK (HAURRAK) (MENDARO MUTRIKU SORALUZE)	10:30	ENPARANTZA (MENDARO)
LAS-TERK.	MENDARO HERRIA SARIA (TXIRRINDULARITZA)	16:00	ENPARANTZA (MENDARO)
IPUIN	IPUIN KONTAKETA ANTZEZTUA	12:00	KULTUR ELKARTEKO PLAZA (DEBA)
IKUSK.	PROMESA BERTINA EGIN DIEGU LAGUN GUZTIEI	18:00	ISPILUEN GELA (DEBA)
MUSIK.	SIN PALABRASS	20:00	ELIZAKO KLAUSTROA (DEBA)
BERTSO.	GIPUZKOAKO HERRIARTEKOA	20:00	GAZTETXEA (MUTRIKU)

Mar 15

MENDIA.	MENDI IRTEERA (IRURTZUN-TRINIDAD)	07:45	AUTOBUS GERAL (MUTRIKU-DEBA)
UMOREA.	ANA GOITIA "KATANA" BAKARRIZKETA	12:30	AITA AGIRRE KULTURG. (ELGOIBAR)
ANTZER.	HhahH: DENBORAREN ALBUMA	16:30	ANTZOKIA (ELGOIBAR)
PAILAZO.	ARLOTE BAT HAUTSAK HARROTZEN	17:30	ISPILUEN GELA (DEBA)
ZINEMA	LABURBIRA (EUSKARAZKO FILM LABURRAK)	18:00	SAN AGUSTIN (MENDARO)

“Langile klaseak sortzen duen aberastasuna ez da langileen artean modu justuan banatu”

ITZIAR HERRERA ETA JON BARANGUAN • M17 Eibarko Greba Batzordea



Martxoaren 17an Hego Euskal Herriko langileak greba egitera deituta daude. Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) 1.500 euroan ezartzea da helburua eta, lanuzteez gain, mobilizazioak eta manifestazioak egingo dira Euskal Herriko hainbat herritan eta hiriburuetan. Eibar greba eguneko gune garrantzitsua izango da eta eguerdian zein arratsaldean egingo dira ekintzak.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Egun biziak dihardute izaten Eibarko Greba Batzordearentzat (@m17eibarkogrebabatzordea). Grebaren mezua gizarteratzen eta ekintzak prestatzen dabilta, besteak beste, egunaren garrantzia ere berebizikoa delako. Martxoaren 17a mugarri izan dadila nahi dute, gizartearen beharretara egokitutako neurriak har daitezten.

Zein testuingurutan kokatzen da greba hau? Zergatik ikusi duzue greba deitzeko beharra?

BARANGUAN: 2020ko greba orokorrean hainbat aldarrikapen egon ziren, tartean gutxieneko pentsioak eta gutxieneko soldata. Beraz, urteetako prozesua izan da eta azken urte eta erdian bi bide landu ditugu sindikatuen artean. Horietako bat izan da bai Nafarroan bai Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) patronalarekin lanbide arteko akordioa negoziatzen saiatzea, non akordio horren bitartez Hego Euskal Herrian lan egiten duten langile guztiek gutxieneko soldata izateko eskubidea izango zuten. Greba honekin 1.500 euro gordinen gutxieneko soldata eskatzen dugu. Egia da

sindikatuak kalkulu ezberdinak egiten ditugula, baina Europa mailan badago aholku bat esaten duena gutxieneko soldata batezbesteko soldataren % 60a izan behar dela. Hori horrela balitz, eskatu beharko genukeen kopurua 1.500 euro baino gehiago izan beharko litzateke, baina negoziatzeko orduan, lehenengo pauso bezala, 1.500 euroko gutxieneko soldata nahi dugu ezarri. Bestalde, herri ekimen legegilearen (HEL) bidea ere landu dugu. Sinadura bilketa egin dugu eta 138.000 sinaduratik gora bildu dira EAEn eta Nafarroan. EAEn, EAJ-PNVk eta PSEk ez dute eztabaidara eraman, aurrez pentsiodunen HELarekin egin zuten moduan; eta Nafarroako Gobernuak ez du ezta tramitera onartu ere. Uste dugu HEL hori ez eztabaidatzea eta ez onartzea antidemokratikoa dela, hori baita gizarte zibilak duen aukera bat lege berriak egitera iristeko. Patronala ez da eseri ere egin eta Gobernuak ez dute eskumena lortzea nahi. Beraz, heldu gara puntu batera non aukera bakarra kalera ateratzea den.

Grebaren aldarrikapen nagusia gutxieneko soldata 1.500 euroan ezartzea da. Zergatik?



HERRERA: Gaur egun, Hego Euskal Herrian 260.000 langile inguru daude 1.221 euroko soldata jasotzen dutenak. Soldata hori ez da nahikoa bizi-kalitate duina edukitzeko (1.500 euroekin ere malabarak egin beharko lirateke). Beraz, euskal langileriaren parte batek behar hori duela ikusten dugu eta sindikatu bezala mobilizazio hau beharrezkoa da pertsona horiei laguntzeko, gehienetan gazteak, emakumeak eta migratuak direnak. Hau oinarritzko zerbait da eta hortik abiatuta hobera joango litzateke dena. Gainera, Euskal Herrian erabakitze eskubidea ezarriko litzateke, eta langileriaren beharrak parlamentuari eta patronalari helarazteko balioko luke.

BARANGUAN: 2013 eta 2023 artean industriako enpresen irabaziak % 53,4 igo dira eta KPIa % 24,4, baina soldatak % 16. Beraz, langile klaseak sortzen duen aberastasuna ez da langileen artean modu justuan banatu. Azken finean, sistema kapitalistan bizi gara eta kapitalak nahi duena da ahalik eta irabazi handiena izatea. Gutxieneko soldata ez igotzea da ez dituztela euren irabaziak galdu nahi. Guk aberastasun hori disputatu nahi dugu eta langile klasean onura batzuk edukitzea, eurek sortzen duten aberastasun hori modu justuan banatuz. **Gutxieneko soldata igotzeak nolako eragina izango luke gizartearen?**



aldatze
denok gara

BATXILERGOKO AURREMATRIKULA

Martxoaren 16tik 27ra

Tlf: 943 70 11 50 | Whatsapp: 614 90 41 12

www.aldatze.eus | aldatze@aldatze.org



“2013-2023an industriako enpresen irabaziak % 53,4 igo dira, KPIa % 24,4, baina soldatak % 16”

“Heldu gara puntu batera non aukera bakarra kalera ateratzea den”

BARANGUAN: Egun hauetan komertzioetan eta tabernetan egon gara informazioa banatzen, eta jendeak guztiz ulertzen du zer den eskatzen duguna. “Eta denda txikiak zer?”, galdetu izan da. Guk planteatzen duguna da jendeak diru gehiago baldin badu gastatzeko, gure herriko dendetan egiten den gastua handiagoa izango dela. Merkataritza-gune handien kontrako irakurketa egiten dugu. Herrian nahi dugu bizi, herrian kontsumitu. Uste dugu denontzat izango dela onuragarria.

HERRERA: Langile klase bezala aukera gehiago edukiko dugu herrian parte hartzeko eta herriko dendetan erosi ahal izateko, bestela zaila egiten da.

Nolako ekintzak egingo dituzue greba egunean bertan eta horren inguruan?

HERRERA: Orain, herrian grebaren inguruko mezuak eta abar ari gara sozializatzen. Komertzioak eta tabernak bisitatu ditugu, baita auzoetan ere, merkadilloan egon gara jendea informatzen, eta gaur, barixakua, kalear egongo gara herritarren artean mezua zabaltzen eta ahalik eta jende gehiagorengana heltzen saiatzen.

BARANGUAN: Infogunea jarriko dugu Untzagan baflearekin eta greba egunerako berotzen joan nahi dugu.

Grebaren inguruan nolako giroa antzematen duzue Eibarren?

BARANGUAN. Greba orokor batean helburua mundu guztia enteratzea da eta pentsatzen dut mundu guztiak dakiela greba dagoela. Greba orokor baten aurrean bi aukera daude: greba egitea edo eskirola izatea, ez dago erdibiderik. Sindikatuak ordezkaritza duten tokietan asanbladak nahiko txukun ari dira irteten. Adibidez, gaur bertan (eguztena), Eibarko ‘Arizaga, Bastarrica y Cia’ (ABC) enpresan bozketa egin da eta 95 langilek esan diote baietz grebari eta seik ezetz. Beste datu batzuk ematearren, Euskal Herrian 1.700 enpresa batzordek babestu dute greba orokorraren deialdia, 136 herritan sortu dira greba batzordeak, 100 kolektibo politiko-sozialetik gora eman diote babesa grebari... Jende asko dago deialdi honekin lanean, enpresetan sindikatuak demaseko lana egiten dihardute hau guztia aurrera ateratzeko eta herrietan sozializazioa egiten

ari gara, argi lagaz zeintzuk diren grebaren zergatiak egon badaudelako.

Eibar gune garrantzitsua izango da greba egunean. Zein ekintza egingo dira hemen?

HERRERA: Eibarren bi mobilizazio egingo dira. Lehenengoak, eguerdikoak, Euskal Herriko hiriburuetan eta Tuteran egingo diren mobilizazioekin egingo du bat, potentia izango da; eta arratsaldean ere mobilizazioa egingo da. Goizean, 11:45ean, Urkizutik eta Hezkuntza Esparrutik (UNI) zutabeak irtengo dira eta 12:30ean Untzagan hasiko da manifestazioa.

BARANGUAN: Gainera, goizean industriaguneetan piketeak egongo dira, herrietan pikete informatiboak egiten pasako gara... Batzuetan gertatzen da toki askotan jendeak beldurra diola greba egiteari. Ez du beldurra piketeengatik, baizik eta greba egiteak izan ditzakeen ondoriengatik.

Zentzu horretan arazoa egon da AGME enpresan. Zer gertatu da?

BARANGUAN: AGME enpresan asanblada deitu dugu eta askotan sindikatuko kideak joaten gara eurekin asanblada horietan parte-hartzera, baina zuzendaritzak erabaki du baimena ez ematea bertako langileak ez diren pertsonak sartzeko. Orain dela bi hilabete sartu ginen beste gai bat lantzeko, beraz, uste dugu hau jazarpen sindikala dela. Askatasun Sindikalaren Lege Organikoak argi uzten du, ondo komunikatuta badago, sartu ahal garela, eta ondo komunikatuta egon da.

Greba eta gero, zer? Honek guztiak jarraipena izango du?

BARANGUAN: Nafarroako Gobernuan lege tramitazioa egon da eta ikusiko dugu PNVk eta PSEk euren posizioak mugitzen dituzten. Greba egin eta astebetera konbokatu zaio patronalari sindikatuekin bilera egiteko. Beraz, oso garrantzitsua da greba oso ondo irtetea eta patronalak ikustea herri bat eta langile klasea duela aurrean. Gutxieneko soldata negoziatzera behartu behar ditugu.

HERRERA: Langile klasearekiko errespetua eduki-tzea eta, gutxienez, gurekin esertzea, eseri ere ez baitira egin. Herriak eskatzen duena da, herriak behar duena.



“Herri ekimen lege-gilea, EAEn, EAJ eta PSEk ez dute eztabaidara eraman; Nafarroan Gobernua ez da eseri ere egin. Antidemokratikoa da”

“Garrantzitsua da greba oso ondo irtetea eta patronalak ikustea herri bat duela aurrean”



Kilometroak baino gehiago: Korrikaren atzean dagoen herri lana

Testua **IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA**

Martxoaren 19tik 29ra egingo da aurtun 24. Korrika. Hamaika egunez, lekukoak 2.175 kilometro egingo ditu Euskal Herrian barrena, Atharratzetik Bilbora, euskara(z) izateko aldarria herriz herri eramanez. Guztira 3.436 lekukohartze inguru izango dira ibilbidetan.

Debabarrenean bi egunetan igaroko da: martxoaren 25ean Itziar, Deba eta Mutriikutik pasatuko da; martxoaren 28an, berriz, Elgoibar, Soralue, Eibar eta Ermuan barrena egingo du bidea.

Baina Korrika ez da egun bateko ekitaldia soilik. Herri askotan hila beteak daramatzate prestaketa lanetan: bilerak, egitarauak, kilometroen salmenta eta herritarrak mobilizatzeko ekimenak egin dituzte. Antolakuntzan dabilzanek argi dute: Korrika herri osoaren lana da.

Antolakuntza lan handia

Elgoibarren, AEK euskaltegiko langileek hartzen dute Korrikaren antolakuntzaren ardura nagusia, nahiz eta herriko eragile askoren laguntza izan. Amaia Elgoibarko AEK euskaltegiko zuzendari eta irakasleak azaldu duenez, prestaketa lan handia eskatzen duen egitasmoa da.

“Korrika antolatzea, batez ere, AEK euskaltegiko langileon artean egiten dugu eta ardurak hainbat izaten dira; hau guztia ganoraz antolatzeak demaseko erantzukizuna eta lana eskatzen du”, dio. Lan hori, gainera, eguneroko jardunarekin uztartu behar izaten dute: “Gure zeregina euskara eskolak ematea da, eta Korrika antolatu behar izan arren, eskolen jarduna ez da eteten; beraz, lana ikaragarri areagotzen da”.

Hala ere, azpimarratu du antolakuntza ez dela AEKren lana bakarrik.

Elkartek, eskolek, erakundeek, enpresek eta udalak ere parte hartzen dute prestaketan. Koordinazioaren zati handi bat teknologia bidez egiten bada ere, aurrez aurreko harremanak ere ezinbestekoak direla dio.

Korrika iritsi aurretik, Korrika Kulturala ere antolatu dute Elgoibarren, euskararen inguruko kultur ekitaldiekin. Lasterketa egunean bertan, berriz, herriko hainbat eragile giroa prestatuko dute. Besteak beste, Mauxitxa txarangak ongietorria egingo dio Korrikari Txarri-dunaneke rotondan.

Amiaiaren arabera, momentu berezietako bat euskaltegiaren aurretik igarotzen den unea da: “Gure euskaltegi aurretik pasatzen denean ere oilo-larrua jartzen zaigu”. Hala ere, Korrikaren funtsa argi dauka: “Ez dezala inork pentsa hau kirol kontua denik; konpromiso eta maitasun kontua baizik”.



Ezkerreko argazkian: Elgoibarko AEK euskaltegian euskara ikasi duten bi herritar. ELGOIBARKO AEK

Goiko argazkian: Ermuko Korrika batzordearen argazkia ERMUKO AEK

Herritarren elkarlana

Itziarren ere hainbat eragile ari dira Korrika prestatzen. Antolakuntzan parte hartzen dute, besteak beste, Itziarko auzoek, Lizarbe guraso elkarteak, Itziarko eskolak, Izarraitz Bizirik elkarteak, gazte asanbladak eta Andutz dantza taldeak.

Itziar Borda Itziarko Auzo Udaleko juntakidearen arabera, dagoeneko hiru bilera egin dituzte egitaraua eta antolaketa lotzeko. Bilera horietan, Korrika Kulturala antolatzeaz gain, lekuko-hartzeak zein taldek erosiko dituzten erabaki dute, ibilbidea landu dute eta materialaren salmenta ere antolatu dute.

Martxoaren 25ean igaroko da Korrika Itziartik. Aurretik, eskolako umeek Korrika Txikia egingo dute arratsaldeko 15:00etan, eta 18:15 aldera igaroko da Korrika ofiziala.

Bordak gogoan du aurreko edizioetako momentu berezi bat ere:

>>> "Ez dezala inork pentsa hau kirol kontua denik; konpromiso eta maitasun kontua baizik"

duela bi Korrika, gauez igaro zen auzotik eta lehen aldiz lortu zuten lasterketa Itziarko erdigunetik pasatzea.

Korrikarekin lotutako oroitzapen pertsonal berezi bat ere badu. Unibertsitate garaian hasi zen parte hartzen, Gasteizen, eta 2022an lagun baten ezkontzarekin lotutako momentu hunkigarria bizi izan zuen: unibertsitateko lagunak lekuko-hartzea erosi zioten Korellan, Nafarroan, eta ezkontzekotan zen

lagunak kilometro osoa egin zuen lekukoa eskuetan, lagunaren artean korrika eginez.

Musika eta harrera

Ermuan, Korrika iristen denean, Alboka Musika Eskolako ikasleek musikaz girotuko dute pasabidea eskolaren atarian. Maite Askasibar musika eskolako bozeramailearen hitzetan, Korrikak beti uzten ditu oroitzapen onak: "Korrika egin dugun guztietan oroitzapen politak izan dira guretzat".

Bere ustez, momentu bereziena lasterketa eskolaren paretik igarotzen denean izaten da: "Gure kaltetik, eskolaren pare-paretik, Korrika pasatzen denean". Parte hartzeko arrazoia ere argi dauka: "Euskarari bultzada ematea ezinbestekoa da".

Erreportaje osoa etakitto.eus webgunean duzue irakurgai.

Martxoaren 28an iritsiko da Korrika Eibarrera, egun osoko egitarauarekin



Eibarko Korrika Batzordeak martxoaren 28rako prestatu duen egitaraua aurkeztu du, Korrikaren 24. edizioa herrira iritsiko dela aprobetxatuta. Goizetik gauera arteko jarduerak antolatu dituzte auzoetan zein erdigunean, herritarrek Korrikaren bueltan biltzeko helburuarekin.

Aurtengo edizioan lasterketa larunbatez eta iluntzean igaroko da Eibartik. Korrika Maltzagatik sartuko da 21:00 aldera, eta ordubete inguru egingo du herriko kaleetan barrena, ondoren Ermua aldera jarraitzeko.

Egunari hasiera emateko, goizean hainbat ekintza antolatu dituzte auzoetan. Urki auzoan, 11:00etan Urkiko Korrika egingo dute Kurutzetatuatik abiatuta, eta 11:30ean herri kirolak izango dira eskolako patioan. Bestalde, Ipurua auzoko merkatu plazan tailerrak egingo dituzte 10:00etatik aurrera, eta 12:30ean Korrika Txikia antolatu dute Argatxan.

Egitarauaren ardatz nagusia Untzaga Plaza izango da, bertan kokatuko baitute Korrika Gunea. Txosna 12:00etan irekiko dute, eta handik abiatuko da eguerdiko poteo girotua. 14:30ean talde-argazkia aterako dute, eta ondoren herri-bazkaria egingo da.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, bazkarirako dagoeneko 200 tiketik gora saldu dituzte, eta 300 lagun biltzea dute erronka. Txartelak AEK euskaltegian eskuratu daitezke.

Arratsaldeko egitarauari dagokionez, 18:15ean KAXA gidatutako zunbatoia egingo dute; ondoren, Matraka elektrotxaranga girotuko ditu kaleak, Korrika iritsi bitartean. Lasterketa igaro ondoren, eguna Iratzar erromeriaren kontzertuarekin amaituko da Untzagan, 22:30etik aurrera.

“Erasora doazen boxeolariak gara, beti nahi dugu borrokatu eta aurrera egin”

AINARA TORVISCO ETA JOKIN MERINO



Deba ibaiaren ertzean, Soraluzeko kiroldegian du tenplua Sorabox taldeak. Astelehen arratsaldean toki lasaia da, bikaina elkarrizketa baterako, baina nabari dira bertan elkartzen diren boxeolarien esfortzu eta izerdiak. Ainara Torvisco eta Jokin Merinorentzat ia bigarren etxea da hura, euren pasioa garatzeko tokia.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Bideoa **OIHANE ZABALA**

Urtarrilaren amaieran Ermuko Boxeo Jaialdian parte hartu ondoren, lasaia dabilta orain Ainara eta Jokin. Lasai bai, baina gelditu barik. Boxeoa biziki gustatzen zaie eta euren bizitzaren parte da. Ring barruan bezala, galdera guztiei egin diete aurre, beldur barik, azkar eta fin mugituz, izkin egin behar izanik gabe.

Nola hasi zineten boxeoa? Zerk erakarri zintuzten?

AINARA: 19 urterekin kick boxingean hasi nintzen eta 15 urte eman ditut entrenatzen eta lehiatzen, baina orain dela urtebete inguru peronea apurtu nuen eta, hankarekin jotzeko beldurra nuen, boxeorekin hastea pentsatu nuen. Gainera, baneukan probatzeko gogo, ez duelako zerikusirik kick boxingarekin, beste modalitate bat da. (Jokin) Merino laguna dut eta etortzeko esan zidan, eta entrenatzailea neska izateak ere (Ixa Rodriguez da entrenatzailea) erakarri egin ninduen. Hasi nintzen, oso gustora egon nintzen hilabete batzuk eta borrokatu ahal nuela esan zidan. Eta noski, oso lehiakorra naizenez, baietz esan nion.

JOKIN: Nik antzeko zerbait bizi izan nuen. Gaztetan kick boxinga egiten hasi nintzen Eibarren, baina handik urte batzuetara belauna apurtu nuen pare bat



“Jendeak pentsatzen du hona etorri eta berehala jartzen zaituztela borrokan, baina asko ikasi behar da aurretik”

BIDEOA



aldiz. Gainera, boxeoarekin zer bait berezia eduki dut beti, gehiago gustatu izan zait, eta hortik jarraitu nuen. Gero, Bergaran hasi nintzen lanean eta Soraluze bidean gelditzen zaidanez, hemen hasi nintzen. Hilabete batzuk pasata, lehiatzeko prest nengoela esan zidaten eta aurrera.

Kick boxingarekin ikasitakoak balio izan zizuen hasieran behintzat?

AINARA: Baietz uste dut. Ezberdina da, baina lehia-tzea, jotzea... Azkenean, biak dira kontaktu-kirolak, beraz, ez zara zerotik hasten. Guardia, eskuekin jotzen eta beste hainbat gauza banekizkien kick boxingari esker.

Ezer ez dakienari, nola azalduko zenioke boxeoaz zer den?

JOKIN: Jendeak pentsatzen du hona etorri eta berehala jartzen zaituztela borrokan, arerioa jotzen eta hori guztia, baina borroka egiten hasteko, asko ikasi behar duzu. Ezer ikasi barik borrokan hasten bazara, mania txarrak hartzen dituzu eta gero zaila da horiek kentzea. Bestalde, errespetu asko dago hemen barruan. Batzuek kalean borrokatzeko nahi dute boxeoa hasi, baina hori hemen ez dago batere ondo ikusita eta talde-taldek kanpo geratzen zara.

AINARA: Boxeoak diziplina ematen dizu, eta neska izanda, kontaktu-kirola izanik, baita segurtasuna ere. Kalean ezin duzu hemengo erabili, baina seguru sentitzen zara. Kanpotik kutsu biolentoa ikusi ahal zaio boxeolari, baina hemen barruan sartzen zarenean ikusten duzu ez dela horrela. Hemen ez duzu ezer demostratu beharrik eta biolentziarekin ez da ezer demostratzen. Hau kirol bat da, bakarkako kirola, eta galtzen duzunean ez duzu sentitzen jo egin zaituztela, beste modu batean bizi dugu. Edonori gomendatuko nioke boxeo egitea. Gainera, hemendik berrituta irteten zara.

Nolako boxeo giroa dago Eibarren eta Debabarrenean?

JOKIN: Azkenengo 2-3 urteetan asko hazi da boxeoarekiko zaletasuna eta toki askotan dauden boxeo-eskolak (Bergaran, Arrasaten, Soraluzen, Eibarren...). Ez da boxeo bakarrik, kick boxinga, MMA, jiu-jitsua... Denak hazi dira.

AINARA: Ni hasi nintzenean ia ez zegoen lehiakiderik eta orain asko hazi da kopurua. Kontaktu-kirolak asko hazi dira eta ondo dago hori normalizatzea. Orain aukera gehiago ditugu borrokatzeko.

Askotan gizonekin lotu den kirola da. Emakume bezala, nola bizi duzu hori, Ainara?

AINARA: 33 urte ditut eta hasi nintzenetik, 19rekin, mutilekin entrenatu dut beti. Orain ere mutilak dira gehienak, baina emakume gehiago dago. Boxeoan kick boxingean baino emakume gehiago dabilela uste dut. Hasieran beti berdinekin lehiatzen ginen eta demaseko harremana genuen. Mutilekin ere oso ondo moldatu naiz beti, errespetuarekin, eta inoiz ez zait ezer txarrik gertatu. Ea emakume gehiago hasten den kirol honetan.

Gainera, hemengo entrenatzailea ere emakumea da, Ixa Rodriguez, euskal boxeoa erreferente bat. Nola-ko entrenatzailea da?

JOKIN: Demasekoa! Asko laguntzen digu, pila bat, eta motibazio puntu hori ematen digu. Asko animatzen gaitu. Oso pozik nago berarekin.

AINARA: Demaseko energia du eta hori transmititu egiten da, zure buruan konfiantza edukitzen lagunduz. Berehala konturatzen da zer bait gertatzen bazaizu eta babesa ematen dizu uneoro. Asko pozten naiz bera ezagutzeaz eta horregatik nago hemen.

JOKIN: Ermuko borroka galdu egin nuen, nire lehen porrota izan zen, eta hurrengo egunean deitu egin zidan: “Jokin, zuk Jokin Merino izaten jarraitzen duzu, eh. Egon lasai, hurrengoan hobeto egingo duzu eta”, esan zidan, eta horrek bete egiten zaitu.

Asko eskatzen duen kirola da boxeo? Entrenamenduak, zaintzea...

JOKIN: Bai, asko!

AINARA: Gure lana dugu eta, gero, hemen entrenatu behar dugu, pisu jakin bat eduki behar dugu eta, horretarako, ezin duzu poteorik egin, hanburgesarik jan eta horrelakoak. Mentalki ez da erraza izaten. Izan ere, topera ibiltzen zara entrenatzen eta ezin duzu modu horretan burua argitu. Agian hori ere ez da modua baina lagunekin bazaude, ezin duzu pare bat



Argazkirako bakarrik jaisten dute guardia Ainarak eta Jokinek. EKHI BELAR

garagardo hartu, agian Coca Cola bat... Borroka baten aurreko asteetan gosea pasatzen duzu azkenean. **Zein pisutan lehiatzen zarete?**

JOKIN: Azken borrokan 62 kilo azpikoetan lehiatu nintzen, baina besteetan 60 kilo baino gutxiagokoe-tan. Orain bertan 67 kilo inguru pisatuko ditut eta hilabete barru beste borroka bat dut. Beraz, pisua zaintzen hasi behar naiz.

Nola lortzen duzue pisua galtzea indarra galdu barik?

AINARA: Hor dago koxka. Pisua galdu behar duzu, baina energia eta indarra ez. Beraz, dieta antolatua egin beharra dago.

JOKIN: Eta hori ez da dena. Ni lanetik etortzen naiz zuzenean entrenatzera eta 21:00 inguruan heltzen naiz egunero etxera. Gero, zapatu goizetan ere en-trenatzen dut edo mendira noa...

AINARA: Azkenean hau gure zaletasuna da. Hori guztia egin eta, gero, gure bizitzak jarraitu egiten du.

Asko ematen dizue boxeoa zuek hainbeste emateko, ezta?

JOKIN: Niretzat demaseko bizitza aldaketa izan da. Lehen juerga gehiago egiten nuen eta alde horretatik oso pozik nago. Gainera gero, egiten duzunean, gehia-go gozatzen duzu.

Nolako boxeolariak zaretela esango zenukete?

AINARA: Bi motatako boxeolariak daude: erasora doa-zenak, zailduak, hau da, gu geu; eta estilistak, guardian gehiago daudenak, gehiago pentsatzen dutenak... Ixak gordetzeko, itxaroteko eta abar esaten dit, baina ezin dut, aurrera egiten dut beti, asko pentsatu barik (barreak).

JOKIN: Guk beti nahi izaten dugu borrokatu eta aurrera egin. Gainera, orain beste modu batean borroka-tzen hasi nahi izanez gero, ez litzaidake ondo irtengo. Gure arerioekin alderatuz txikiak gara eta erasora joan behar izaten dugu.

Borroka bakoitzak taktika bat eskatzen du?

AINARA: Borrokalarari bakoitzak. Arerioaren arabera antolatzen duzu borroka. Zuk zurea argi eduki behar duzu beti, zure lana egin behar duzu, baina jakinda zein-en aurka egiten duzun.

OSASUN GIDA

DENTISTAK

Kolegiatu n.º. 20037023

Amaia Esnaola
ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3.ºz. Eibar
943 20 72 17 | 660 42 28 08
amaia@esnaolaodontologia.com

arat.
HORTZ KLINIKAK CLINICA DENTAL

ZURE
IRRIBARRE
ONENA

Toribio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com

EIBAR HORTZ KLINIKAK
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
RPS 72/18

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

BISTA·EDER
Hortz Klinika · Clínica Dental

T: 943 70 00 82

Bista Eder n.º 19, bajo
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

GASTESI Hortz-Klinika

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implantak / Laser Teknologia

IRAZABAL
clínica dental

Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfn. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGO

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 843-782886

Odontologia
Biologikoa

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4.º I. Eibar
Tel.: 943 70 23 85

RS Hortz Klinika
Jose Usen Rodriguez
Montero DOKTOREA

LARRIALDIK
ERE LANTZEN DITUGU

CLINICA DENTAL Y
MEDICINA ESTETICA RS 603 48 90 18 / SAN JUAN, 7

FISIOTERAPEUTAK

ANE MENDIA
978 Kolegiatu zkoa.

- INDIATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- Puntón eta TRATAMENDUAK
- K-stretch + HIPOPRESIOAK

FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ARRAGUSTA, 20
T.L.F: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

masajeak eta
tratamenduak

FISIOTERAPIA IPURUA
EDURNE ETXEBERRIA

1089 kolegiatu zkoa.

I. Ojanguen, 2 678 746 617

Julian Etxebarria, 7 688717529

muina
FISIOTERAPIA ZENTROA

Zorri Pelbikoa · Fisioterapia orokorra · Taldetako

Inune Alberdi Sarobe

GINEKOLOGIA

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

OSASUN GIDA

MEDIKUNTZA ESTETIKOA



abontza
clínica estética

MEDIKUNTZA ESTETIKOA
• Dermatología estética
• Auspegi gatzetza
• Balezki
KIRURGIA ESTETIKOA
• Bektaroplastia eta otoplastia
• Liposukzioak
• Kirurgia Intimoa

Egiguren, 6 - Behea 943 20 60 44
www.clinica-abontza.com

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragüeta 2bis B, Entreplanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



**RS Medikuntza
Estetikoak**
Maria Rosmina Soliz
Salvaterra DOKTOREA

CLÍNICA DENTAL Y
MEDICINA ESTÉTICA RS 943 90 30 36 / SAN JUAN, 7

OKULISTAK



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmología Clínica

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



PODOLOGOAK



**BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050**

**ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746**

PODOLOGOAK
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosario Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOAK

**Maider
Lopez
Etcheberria**

Arragüeta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PSIKOLOGOAK



GONZALEZ DE MENDIBIL
PSIKOLOGIA | PSIKOTERAPIA

Haur, nerabe eta helduenganako
arreta psikologikoa

www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
T.Etxeberria 5, 1-C | 623 45 31 95

**Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa**

Oscar / Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

**HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

TERAPIA NATURALAK



DEVI OM

**YOGA ETA
AYURVEDA ZENTROA**

- Yoga klaseak
- Ayurveda masajeak eta terapiak
- Nutrizio, Osasun eta Ongizate kontsultak
- Terapiak naturalak

641 512 059
TXALTZA ZELAI 20, BEHEA EZK (EIBAR)



Manifestazio jendetsua Eibarren Emakumeen Nazioarteko Egunean

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, Martxoaren 8an mobilizazio jendetsuak egin ziren Euskal Herri osoan, baita Eibarren ere. Eguraldia lagun, jendetzak hartu zuen parte eguerdian Untzagatik abiatutako manifestazioan. Ermuan, berriz, eskualde mailako mobilizazioa egin zuten, Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialistak antolatuta. Bezperan ere M8-arekin lotutako ekitaldi bi hartu zituen gure herriak: Eibarko Udal Dantzaren eskutik Errebalek zumbatoi morea hartu zuen zapatu goizean eta, Itaiak antolatuta, autodefentsa feminista tailerra egin zen.





Bihotzez zaintzen dutenak omentzeko erakusketa



Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

Arrate Kultur Elkartearen Topalekuak 'Zaintzaren taupadak' izeneko erakusketa dihardu jasotzen hilaren 2az geroztik eta 22ra arte egongo da zabalik. Bertan, askotan (edo gehienetan) itzalean edo ezkutuan geratzen direnen bizitzak jarriko dira argitara, hau da, zaintza lanez arduratzen diren emakume migratuena. Zaintzaileek bezala, erakusketa antolatzeaz arduratu den Merlin Medina Acostak ere bihotza jarri du hura prestatzen eta hilaren 19an bisita gidatua eskainiko du.

Bihotz more txikiz osatutako bihotz handi batek ematen die ongi etorria Topalekura gerturatzen direnei. Erakusleihoko bihotza osatzen duten bihotz txikiek emakume zaintzaileen arteko bata-suna eta sare kolektiboa irudikatzen dute. Bihotz horretatik jaisten diren hari moreek harri bide bat zeharkatzen dute, zaintza-lanaren zailtasunez betetako bidea gogoraraziz; bide horren alboan zapata gorri pare bat eta hariz egindako sare more bat ikus daitezke, Andretxeak, el-karte feministek eta Eibarko Udaleko Berdintasun zerbitzuek ematen duten babes eta ahalduztze-sarea sinbolizatuz. Tartean hari gorri bat ikusi dezakegu, otsailean hil zen Yolanda Acostaren omenez, berak eta beste askok ereindakoak zaintza lanak egiten jarraitzen dutenen bihotzetan bizirik jarraitzen duelako.

Bainaegin diezaiozun kasu Merlin Medina Acostari eta bere gomen-dioak jarraitu. Izan ere, erakustokian sartzerakoan lurrean dauden geziak jarraitzeko aholkua eman digu, bihotzaren funtzionamenduaren faseen arabera zaintzaren istorio kolektiboan ibilbidea egiteko. Erakusketan zehar bihotzaren faseak eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeen (eta gizon baten) argazkiak, historia eta esaldi edo mezu bat tartekatzen dira, objektu batzuekin, hasieran aipatutako bihotz morean amaituz.

Nodo sinusala da hasiera, jatorria: migratzeko erabakia, etxea uztea, sustraietatik askatzea eta bidaia horrekin hasten den bizi- eta lan-ibilbidea irudikatzen dituen. "Zaintza-harremana hastea ere bada. Bata zaintzaile bihurtzea eta bestea zaindua dena", esan digu Merlinek.

Gero sistolea dator, odola bultzatzen duen fasea, eta erakusketa honetan entregaren unea izango litzateke. "Zaintzaileak beste pertsona baten ar-dura hartzen dute, euren eskuetan egoten da beste horren bizitza", diosku

antolatzaileak. Zaintzaileen eguneroko lana, ordu luzez beste pertsona baten erritmoari lotuta egotea, garbitzea, laguntzea, botikak ematea, sostengatzea, egotea, askotan inolako aitortzarik gabe... Hori ordezkatzan da hemen.

Bihotzak ere atsedenaldi laburrak behar ditu, eta horixe da diastolearen espazioa. Atsedena txiki horiek, "ia beti eskasak", zaintzaileei bizirauteko eta aurrera jarraitzeko aukera ematen dieten tarteak dira. Erakusketa aretoan zegoen besaulki gorri batekin irudikatu du hori Merlinek. 'Momentu batez eseriko naiz... ahal badut' dio kartel batek. "Erakusketa prestatzen nengoen bitartean, hainbat gauza jauzi zaizkit eskuetan edo aurkitu ditut bat-batean eta zerbaitengatik izan dela pentsatu dut. Horregatik erabili ditut", diosku.

Taupada guztiak, oster, ez dira erregularrak eta arritmiak eta krisiak izaten dira. Zaintzaileek bizi dituzten zailtasunak irudikatzen dira guene horretan: galerak, doluak eta larrialdiak.

Azkenik, erritmo sinusala ageri da, oreka irudikatzen duena: aitortza, egonkortasuna eta duintasuna lortzeko desira, "gaur egun oraindik helburu baino gehiago amets den arren", Merlinen ustez.

"Baina, nola egin bihotzaren inguruko zerbait elektrokardiogramarik gabe?", galdetu zion bere buruari Merlinek. Beraz, sendagilea den lehengusu bati deitu eta zaintzaren elektrokardiograma irudikatu du paretean, lau bihotzekin. Bihotz horiek zaintzaile baten lan-ibilbidearen etapa nagusiak sinbolizatzen dituzte, eta kolore ezberdinetako lerroek taupada bakoitzaren esanahia zabaltzen dute: lerro gorri ilunak, migrazioa; gorria biziak, lana bera; grisak, formakuntza; eta arrosak, aitortza.

Bisita gidatua 19an

Aipatutakoak erakusketaren zertzelada batzuk besterik ez dira, askoz ere mami gehiago baitu Merlinek prestatutakoak. Sortzeko orduan ere bihotzaren faseak pasatu zituen, bihotzak forma hartu eta bere kabuz arnasten hasi arren.

Esan bezala, erakusketa 22ra arte egongo da zabalik, baina erakusketaren inguruan gehiago sakondu nahi izanez gero, hilaren 19an bisita gidatua egingo du, 18:00etan. Gainera, mokadutxo egongo da bertaritzen direnentzat.



Martxoaren 19an, 18:00etan, bisita gidatua egingo da Topalekuko 'Zaintzaren taupadak' erakusketa ikusteko



Mezuak errealitatearekin ahalik eta zerikusi handiena edukitzeko, sendagileen laguntza jaso du Merlin Medina Acostak. EKHI BELAR

“Suizidioak sentimendu kontrajarri asko eragin ditzake bizirik geratzen diren horiengan”

KARMELE MITXELENA • Idazlea



Karmele Mitxelena (Oiartzun, 1988) idazlea izan da “Idazlearekin Harixa Emoten” euskarazko irakurle-taldeko azken gonbidatua. “Zoriona, edo antzeko zeozer” (Elkar, 2024) liburuarekin etorri da Eibarrera, bidaia fisikoa eta emozionala uztartzen dituen eleberriarekin. Bere buruaz beste egin duen bikotekidearen alargunean jarri nahi izan du fokua idazle oiartzuararak, “albokoaz, akonpainamendu eta zaintza-lanak egiten dituenaz ez baita hainbeste hitz egiten”.

Testua MAIDER ARANBERRI

Bere buruaz beste egin duen bikotekidearen istorioa kontatzen duzu. Zergatik abiapuntu hori? Zer kontatzea zen helburua?

Helburua hain juxtu horixe zen, bere buruaz beste egin duen pertsona baten bikotekidearen larruan jartzea fokua, eta istorioa ahots horretatik kontatzea. Bada heriotza oso berezi bat suizidioa, ulertzeko zaila gertatzen dena askotan. Eta heriotza mota honek sentimendu kontrajarri asko eragin ditzake bizirik geratzen diren horiengan. Suizidioaz gutxi hitz egiten da, baina hitz egiten denean, batez ere, bere buruaz beste egin duen horren inguruan hitz egiten da, eta ez hainbeste bere albokoaz, askotan akonpainamendu eta zaintza lanak egin dituen horren inguruan. Niretzat, alargun horren bizipenetatik kontatzeko asko zegoen; sortu eta landu nahi nuen ahots bat zen. Orokorrean gaixotasunak ulertzea ez da erreza, eta are gutxiago gaixotasun mentalen kasuan, arrazoitik oso urrun gera daitezkeelako, eta horrek zaintzailearen papera erabat zailtzen du.

Horrelako heriotzen aurrean dolua ere bestelakoa izaten da?

Hiltzen denarentzat heriotza heriotza da, ez dago besterik. Bizitza bukatzen zaio, eta kito. Ingurukoak dira bizirik geratzen direnak, dolu are mingarriago eta sarri ulergaitzago batean, eta askotan, eleberri honetan bezala, errua, haserre, amorrua, tristura nahasten dira, eta sentimendu kontrajarriak eragin ditzake. Bizirik geratzen denak etengabe aurpegiatu diezaioke hil

denari hiltzea erabaki izana, bizirik jarraitu edo hil erabakitzerakoan, bigarrena hautatu izana.

Gure gizartearen doluaz nahikoa hitz egiten dela uste duzu?

Dolua bada historikoki oso isilik eraman izan den zerbait, nork bere etxean sartuta eraman izan duena, ingurukoekin gaiaz gehiegi hitz egin gabe. Gaur egun mila teoria daude gaiaren inguruan, eta gehiago hitz egitera ausartzen garelako esango nuke, bai. Baina dolua zer den definitzea ere ez da erraza. Nik orain dela gutxi arte prozesu gisa ulertzen nuen, hasiera eta bukaera zuen etapa bat. Orain beste modu batera ulertzen dut, hain lineala ez den zerbait bezala, joanetorrian dabilena, gorabeherekin, eta amaitzen ez den zerbait, formaz aldatuta ere, beti hor dagoen sentimendu bat bezala.

Kosta egiten zaigu heriotzari buruz hitz egitea, irakurtzea... Kasu honetan, gai horrek gidatzen du eleberria. Nolakoa izan da idazketa-prozesua?

Oso modu naturalean idatzi dut, halaxe atera zait. Saiatu naiz protagonistaren pentsamenduei filtrorik ez jartzen, pertsonaia kontraesanetan jartzen, zenbait unetan inkoherente egiten. Horrek pertsonaia benetakoagoa egiten duela uste dut, eta gertuagokoa irakurlearentzat. Bestalde, egia da heriotzaz asko hitz egiten dela eleberrian, baina era berean badela bizitzan berkokatzeko ahalegin bat ere, biziberritzeko gogo baten seinale.

Umore beltza ere erabili duzu, apur bat pisua arintze aldera?

“Gaixotasun mentalak arrazoitik oso urrun gera daitezke eta horrek zaintzailearen papera erabat zailtzen du”

Oso gustoko dut umore beltza, ironia, edo uneren batean zerbait makabroa idaztea. Gustatzen zait, nik irakurle bezala asko eskertzen dut, eta idazterakoan naturalki ateratzen zaidan zerbait da. Irakurleari irriparre txiki bat sorraraztea da, nahi gabe ateratzen zaio irribarre bat. Hori bai, arriskutsua ere izan daiteke. Uste dut asmatu egin behar dela umore beltzaren erabilera neurtzen, oso bestelako zerbait lortu nahi ez baduzu behintzat.

Gai sentsiblea da. Zelan egin duzu lan, zelan dokumentatu zara?

Batez ere esperientzia pertsonalak entzun eta irakurri ditut, bai gaixotasunari buruz, bai suizidioan pentsatzeari buruz eta baita heriotzaren momentuari buruz ere, kasu honetan itotzearen bizipenari buruz. Horrelakoetan iturri desberdinetatik elikatu eta nire ahots propioa eratzen dut, niretik kontatzeko eta ez beste norbaiten ahotsetik; niretik ari naizela sentitu behar dut lasai idazteko.

Bidaia fisikoa eta barne-bidaia nola lotu dituzu narritiboki?

Bidaia fisikoak ahalbidetzen du barruko bidaia hori egin ahal izatea. Protagonistak itsaso batetik bestera ihes egiten du, mundu batetik bestera, baina mundua bakarra da, ezta? Eta baita itsasoa ere. Itsasoa bitan banatzeak bere bizitzaz hausnartzeko nolabaiteko perspektiba ematen dio distantziatik. Eta hori guztia itsasoarekin dituen elkarrizketetan ematen da narratiboki, elkarrizketa itxurako bakarrikizketetan, itsasoa ez baita ez bere senarra, ez itsasoa bera ere; itsasoa bere buruaren ispilu da eleberri honetan, eta bere buruari hizketan ari da etengabe.

Zer izan da zailena liburua idazterakoan?

Niretzat zailena zer ez dudan kontatuko erabakitzea izaten da ia beti. Eleberri batean gai eta pertsonaia asko jorratu behar izaten dira, eta horien inguruan asko esan daiteke. Noski, dena ezin da esan, dena ezin



ARGAZKIA: NAIARA MITXELENA

da idatzi, eta idazlearen lana izaten da ondo aukeratzeari zer bai eta zer ez, kontatzen ez denak ere sekulako pisua izan dezakeelako obraren bukaerako emaitzan.

Nolako harrera izan du?

Irakurleek orokorrean oso gustora irakurri dutela esan didate, arina dela eta gertuko ahots bat aurkitu dutela bertan. Sinpleak ez diren ideia eta gogoeta batzuk modu sinplean azaldu ditudala ere errepikatu didate askok.

Ipuinak egin izan dituzu gehienbat orain arte eta lan honetan ere antzeman da atzean ipuinak idazten duen idazlea dagoela...

Bai, oso ipuinzalea naiz. Eleberri honetan ere atal bakoitzak badu bere hasiera eta bukaera propioa. Atal bakoitza izan liteke bere horretan ipuin bat. Gustatzen zait atal bat bukatzerakoan irakurlea ahozapare jakin batekin uzten, zenbakiaz gain, atalak izan dezala beste ataletatik desberdinduko duen zerbait.

Zer ari zara idazten?

Une honetan testu laburrak idazten ari naiz proiektu txikietarako, gauza handirik ez. Azkenaldian, ordea, badut buruan beste eleberri bat idazteko ideia eta go-go, eta baliteke laster heltzea.



FELIX MORQUECHO

Feminista zara. Feminista naiz

Zu, bozgorailu eta guzti manifestaldiko lehen lerroan jartzen zaren hori. Zu, egunkaria zabaldu eta M8ari buruzko orriak salto batean pasatzen dituzun hori. Zu ere, aurtan aterki morea erosi eta, ateri egon arren, goiz osoa zabalik eraman duzun hori. Zu, gaztetan, tabernetan ipurdia hainbatetan ukitu zizuten eta, minduta sentitu arren, “normaltzat” jo zenuen hori. Zu, haserre zeundela, neska-lagunari oihu egin eta egun hori burutik kendu ezinik bizi zaren hori. Zu, txapa more bat soinean eramateak lotsa ematen dizula-eta logelako argazkien artean itsatsi duzun hori. Zu, eskolako patioan neskengana hurbiltzen ez zaren mutil hori. Zu ere, jubiletzeko atean andreei atea zabaltzen diozun hori. Zu, autobusera igotzean bolantean lehen aldiz neska bat ikustean harrituta amari kontatu zenion gazte hura. Zu, gaueko ordu txikietan laguna -neska- etxeko portaleraino lagundu zenuen hura. Zu, zure ikasleak mundu hobe baterako hezi nahi dituzun hori. Zu, gau batean ondo pasatzera irten eta zure mutil-lagun izatea nahi zenuen mutil guapo hark bortxatu zintuen hura. Zu, lagunei, zutaz gaizki pentsatu ez dezaten, zenbat bikote izan dituzun kontatu nahi ez diezun hori. Zu, alaba edukitzean, ezingo zela futbolaria izan pentsatu zenuen hori. Eta zu, feminista ote zaren galdetu dizutenean ezetz erantzun duzun hori, zu ere feminista zara. Feminista ez izatea matxista izatea delako, desberdintasunak egon nahi izatea, ez fisikoki, hor bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baizik eta eskubideetan eta aukeretan desberdintasunak izatea mutil edo neska jaiotzeagatik. Horregatik, era guztietako feministak egongo dira gure kaleetan, emakumeak eta gizonak, militante sutsuak edo jarrera apalagoa dutenak, baina seguru nago atzera jo nahi dutenak gutxiengo bat direla. Nahiz eta batzuetan, gutxi horiek, zarata asko egin.

“Eta zu, feminista ote zaren galdetu dizutenean ezetz erantzun duzun hori, zu ere feminista zara”



Alberto Ferreiro azpitxapeldun XIII. Bidasoa Txingudi Squash Sarian

E.B. Eibarko Klub Deportiboko squash batzordeko Alberto Ferreiro eta Sergio Salgado XIII. Bidasoa Txingudi Squash Sarian lehiatu ziren joan den asteburuan. Biek ala biek egin zuten lan txukuna eta azpitxapeldun izan ziren, bata sailkapen orokorrean eta bigarrena kontsolazio koadroan.

Txapelketa hasi aurretik, Salgado bosgarren zerrendaburua zen eta Ferreiro zortzigarrena, eta zozketak koadroaren alde berean jarri ziren, finalerdietan elkarren aurka aritzeko aukera emanez.

Dena dela, horiezzen gertatu, Salgado 3-2 galdu baitzuen Iruñeko Iñigo Iriarteren aurka eta, ondorioz, kontsolazio koadroa jokatzera pasa zen. Hor bai, lehen bi partidak irabazi zituen eta finala Ioritz Mantrolaren aurka galdu zuen, 3-2.

Ferreirok, bere aldetik, Txema Dominguez kanporatu zuen final-laurdenetan (3-2) eta Fran Serrano finalerdietan (3-1). Finalean Unax Merino izan zuen aurkari, Gasteizko FreeSquash Klubeko 19 urteko jokalaria, eta eibartarra bigarren postuarekin konformatu behar izan zen.

Liderrek ez dute hutsik egin Kopako 2. jardunaldian

E.B. Futbol zaletuaren Kopako bigarren jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan eta liderrek ez zuten hutsik egin, euren partiduak irabazi baitzituzten. Bar Marem taldeak 0-1 irabazi zion zapatuan, martxoak 7, Limpiezas Ruedari eta Xania Tabernak 3-4 Garajes Garcari eta, atzo, Kalaka Buenos Aires 4-2 gailendu zitzaion Baserriri.

Bergara Pneumatikoak taldeak atsedean hartu zuen, eta aurrekoek pixka bat alde egin diote sailkapenean.

Lehen jardunaldian galdu ondoren, Liga irabazi zuen Malape Taberna berriz itzuli da garaipenaren bidera, Adahi Etxegiri 6-0 irabazita.

SAILKAPENA

1. Kalaka Buenos Aires, 4 puntu
2. Bar Marem, 4 puntu
3. Xania Taberna, 4 puntu
4. Bergara Pneumatikoak, 2 puntu
5. Malape Taberna, 2 puntu
6. Garajes Garcia, 0 puntu
7. Limpiezas Rueda, 0 puntu
8. Adahi Etxegi, 0 puntu
9. Baserrir, 0 puntu

Emakumeen mendi-ibilaldia domekan

E.B. Domeka honetan, emakumeentzako mendi-ibilaldia antolatuko dute Eibarko Klub Deportiboa-k eta M8 lantaldeak, Eibarren. Ibilaldia 10:00etan hasiko da Depor parean, eta parte-hartzaileek zazpi kilometro inguruko ibilbidea egingo dute. Ibilbidea Deporretik abiatuta Elgetako errepidetik igaro, Unbe aldera joan, Altamira baserritik pasa eta Txontan amaituko da.

Antolatzaileen arabera, ekimenaren helburua adin, jatorri eta kultura

ezberdinetako emakumeak elkartzea da, mendian elkarrekin ibiltzeko eta berdintasunaren aldeko mezua zabaltzeko.

Ibilaldiaren amaieran mokadu bat eskainiko dute Depor tabernan, eta horretarako beharrezkoa izango da alde aurretik izena ematea. Izena emateko epea martxoaren 13ra arte egongo da zabalik. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, eguraldi txarra eginez gero, ibilbidea aldatzeko aukera ere egongo da.



Asteburu bizia izan zuten Eibar Triatloi Taldekoek

E.B. Asteburu bizia izan zen aurrekoa Eibar Triatloi Taldearentzat. Hiru lasterketa jokatu ziren eta han eta hemen izan ziren atleta eibartarrak, taldearen maillota modu duinean defendatuz.

Zapatuan, martxoak 7, Bilbo 10K lasterketa jokatu zen 3.705 parte-hartzaileekin. Tartean Eibar Triatloi taldeko Oscar Frias egon zen eta 306. postuan amaitu zuen 39:26 denborarekin.

Domeka goizean bi probatan aritu ziren eibartarrak. Arnedon (Errioxa) Atom Isasa Trail Xtrem lasterketa jokatu zen eta Jonatan Alustiza 16 kilometroko distantzia lehiatu zen. 1:23:02 behar izan zituen kilometro horiek egiteko eta sailkapen orokorreko 29. postuan amaitu zuen, 5. beteranoen mailan.

Añorgan, bestalde, Ugaitz eta Robeto Gartzia egon ziren beste 155 atleten artean. Ugaitzek zulatua izan zuen bizikletan eta, konpondu ondoren, sailkapen orokorreko 106. postuan amaitu zuen, 6. gazteen mailan (1:27 denborarekin). Robertok denbora gutxiago behar izan zuen proba amaitzeko, 1:13, eta sailkapen orokorreko 64. postuan amaitu zuen, 2. beteranoen mailan.



Asola Berrikoak garaipenetik gertu txapelketaren hasieran

E.B. Joan den asteburuan eman zitzaion hasiera 55. Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketari Elgoibarko San Pedro bolatokian. 70 bolarik hartu zuten parte lehen tiraldian eta Floreagako Gorka Etxaniz izan zen irabazlea sei txirlorekin.

Asola Berriko ordezkariak oso lan ona egin zuten eta irabazlearengandik txirlo batera geratu ziren Arkaitz Rodriguez, Enara Montiel eta Alex Campos. Ganiz Rodriguezek, bestalde, lau txirlorekin amaitu zuen tiraldia.

Biharko tiraldia Leintz-Gatzagan jokatu behar zen 17:00etan, baina bolatokia egoera txarrean dago, eta eguraldiaren iragarpenagatik San Miguelen (Elgoibar) egingo da.



Eibar Rugby Taldeak agur esan dio mailaz igotzeko ametsari

E.B. Iberdrola Ligara igotzeko fasearen finalerdietako partidua jokatu zuen Eibar Rugby Taldeak domekan Turiaren aurka, neurketarik galdu barik zegoen taldea. Eibarrek aurpegia eman zuen, baina valentziarrak nagusi izan ziren eta 38-17 gailendu ziren markagailuan. Horrela, eibartarrek agur esan diete igotzeko aukerei.



Uxue Gutierrez infantil bigarren izan da Gipuzkoako Judo Txapelketan

E.B. Domekan jokatu zen Urnieta-ko kiroldegian Gipuzkoako Infantil Judo Txapelketako hirugarren jardunaldia, eta bertan nabarmendu zen Uxue Gutierrez, Kalamua Judo Taldeko ordezkaria. Judokak zilarrezko domina eskuratu zuen -44 kiloko emakumezkoen kategorian, aurreko bigarrendun lortutako emaitza bera errepikatuta.

Lehen bi kanporaketak sendo irabazi ondoren, berriro ere finalera iristea lortu zuen. Hala ere, azken borrokan ezin izan zuen garaipena eskuratu, eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Azpitzapeldunorde izateari esker, Gutierrezek Euskadiko Eskolarteko

Jokoetan parte hartzeko txartela lortu du. Txapelketa martxoaren 28an jokatu da, eta bertan emaitza onak lortuz gero, Espainiako Txapelketarako sailkapena ere lortu ahal izango du. Aurten txapelketa hori apirilaren 18an jokatu da Palma de Mallorcan.

Bestalde, klubetik animo mezua bidali diote Josu Garro judokari. Lesio baten ondorioz ezin izan zuen Gipuzkoako Txapelketako azken jardunaldian parte hartu, eta horrek puntuak pilatzeko aukera kendu dio. Hori dela eta, ezin izango du Euskadiko Eskolarteko Jokoetan lehiatu, baina taldekideek laster tatamian ikustea espero dute.

Deporren Ohiko eta Ez Ohiko Batzarrak

E.B. Eibarko Klub Deportiboak bazkide guztiei dei egin die datorren martxoaren 26an egingo diren Batzar Nagusietara joateko. Bi bilera egingo dira egun berean klubaren egoitzan.

Lehenik, Ohiko Batzar Nagusia egingo dute, 19:00etan, eta iaizkoari

errepasoa egin eta 2026ko ekintzak azalduko dituzte.

Ondoren, Ez Ohiko Batzar Nagusia egingo dute, 20:00etan. Bilera horren helburuak zuzendaritza batzordeko hainbat kide aukeratzea eta batzorde batzuetako arduradunak berritzea izango dira.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Espanyol - EIBAR (astelehenean, 20:00)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Burgos (etzi, 18:30)

Emakumezkoen 2. Maila RFEF

EIBAR B - Real Sociedad B (bihar, 12:00)

Gizonezkoen 2. Maila RFEF

Mutilvera - EIBAR B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR C - Aurrera (etzi, 12:30)

Erregionaleko Ohorezko Maila (gi)

URKI - Real Union B (etzi, 12:35)

Erregionaleko Gorengo Maila (gi)

EIBARTARRAK - Anaitasuna (bihar, 11:45)

Jubenilen Ohorezko Maila (gi)

EIBAR - Osasuna (bihar, 16:00)

Jubenilen Euskal Liga (gi)

Getxo - URKI (bihar, 13:00)

FUTBOL-ZALETUA

- Bar Marem - Adahi Etxegi (bihar, 09:00)
- Garajes Garcia - Bergara Pn. (bihar, 10:30)
- Limpiezas Rueda - Baserri (etzi, 09:00)
- Kalaka Bs. As. - Malape (etzi, 10:30)
- Atsedena: Xania Taberna

ESKUBALOA

Zilarrezko Maila (em)

Urdaneta - E ESKUBALOA (etzi, 12:15)

1. Maila Nazionala (gi)

Zarauz - EIBAR ESKUBALOA (bihar, 19:30)

Euskadiko Senior Txapelketa (gi)

E. ESKUBALOA B - Ereintza (bihar, 13:30)

SASKIBALOA

Seniorren 1. Maila (gi)

A. JUANTXO - Aldapeta (gaur, 20:30)

Seniorren 2. Maila (em)

Mundarro - EIBAR SASKI. (bihar, 15:30)

WATERPOLOA

2. Nazionala (gi)

URBAT - WP Navarra (bihar, 19:45)

Euskal Herria Liga (em)

WP Logroño - URBAT (bihar, 15:00)

Euskal Herria Liga (gi)

Sestao - URBAT B (bihar, 15:30)

FERRUGBIA

Seniorren Euskal Liga (gi)

EIBAR RT - Gaztedi (bihar, 16:00)

Kirol albiste gehiagore webgunean



“Benetako emakumeen istorioetatik sortu dugu Zambuila”

IRENE HERNANDO • Aktorea



Irene Hernando aktore eibartarra aurpegi aski ezaguna da herriko kultur giroan. Oraingoan, baina, proposamen berezi batekin itzuliko da oholtzara: *Lolak Kolektiboaren Zambuila* antzezlanarekin. Esti Curiel eta Amaia Ortíz de Galarreta lagun dituela, hirukoteak emakumeen istorioetan eta belaunaldien arteko begiradan oinarritutako sorkuntza kolektiboa ekarriko du martxoaren 26an Coliseo antzerkira.

Testua **ANA AIZPURUA RUBIO**

Gaur, martxoak 13, estreinatuko duzue antzezlanak Zumaian eta hilaren 26an egongo zarete hemen, Eibarren. Zer da “Zambuila”?

Berba herrikoia da. Esti Curiel zumaiaarra da, eta berak proposatu zuen. Oso ondo egokitzen zitzaigula iruditu zitzaigun. Nolabait, protagonistaren murgiltze bat adierazten du: uretan sartzea edo bizitzako etapa berri batean sartzea. Hortik dator ideia.

Kartela ikusita, hiru emakume uretan sartuta... Ondo pasatzen ari zaretela ikusten da.

Bai, argazkia Donostiako Kontxan egin genuen. Udan turista asko zegoen, eta azkar egin behar izan genuen. Dirulaguntza bat eskatzeko dosierra prestatzen ari ginen, eta horretarako egin genuen argazkia. Oso kuriooa geratu zen.

Nola sortu zen antzezlan honen ideia? Eta nolakoa da zuen taldea, Lolak Kolektiboa?

Gure lankide Estik dirulaguntza bat lortu zuen elkarriketa batzuk egiteko, istorio bat sortzeko asmoz. Zumaian hasi zen emakumei elkarriketak egiten. Emakume askok itsasoarekin harreman zuzena zuten: batzuk saregileak izan ziren, beste askoren senarrak marinelak izan ziren, eta beste batzuk arrandegietan lan egindako emakumeak. Elkarriketa horietan istrio



Irene Hernando eibartarra ikusteko aukera izango dugu laster.



Lolak Konpainiako Amaia Ortiz de Galarreta, Irene Hernando eta Esti Curiel Eibarren izango dira martxoaren 26an.

oso politak agertu ziren, eta bizimoduari buruzko gauza interesgarriak. Orduan, Amaia Ortiz de Galarreta-rekin eta nirekin harremanetan jarri eta esan zigun: "Elkarrizketa hauek dauzkat, eta antzezlan bat sortu nahi nuke". Horrela hasi zen dena. Gure lan egiteko modua kolektiboa da: denok aportatzen dugu, denok sortzen dugu, elkarri zuzentzen diogu lana, salmenta, ekoizpena... Batzuetan kaotikoa izan daiteke, baina denak gaude maila berean. Prozesu honek erakutsi digu sorkuntza egiteko modu asko daudela. Normalean testu batetik abiatzen gara, baina kasu honetan elkarrizketetatik eta benetako istorioetatik sortu dugu lana. Gainera, lankide izatetik benetako lagun izatera pasatu gara prozesu horretan.

Eta hortik sortu da Lolak Kolektiboa?

Bai. Antzezlan honekin lanean hasi ginenean konturatu ginen talde bezala izen bat behar genuela. Itsasoarekin edo antzerkiarekin lotura izan zezakeen zerbait pentsatzen ibili ginen, baina azkenean *Lolak* izena gustatu zitzaigun (titiak ere badira). Eta horrela geratu zen: *Lolak Kolektiboa*, eta kitto.

Antzezlanak zer kontatzen du zehazki?

Hasieran emakume horien istorioak plazaratzea zen asmoa, baina hausnarketa bat ere proposatu nahi genuen. Horregatik sortu genuen gaur egungo protago-

"Antzerkia egitea zaila bada, are zailagoa da euskaraz egitea"

nista bat. Protagonista Itziar da, berrogei urte inguruko emakumea. Erizaina da eta etxez etxe ibiltzen da lanean. Halako batean, Karmen izeneko emakume nagusi baten etxera joaten da. Karmen 85 urte dituen emakune euskalduna da, eta bere senarra marinela izan zen. Karmenek alaba bat ere badu, Arritxu. Horrela, hiru belaunaldi agertzen dira: Karmen, Arritxu eta Itziar bera. Ikusten da nola bizi ziren lehen, nola bizi garen orain, eta belaunaldi ezberdinen artean sortzen diren ikuspegiak. Oso hirukote bitxia eta barregarria da. Gaur egungo gaiak jorratzen ditugu eta erritmo handikoa da. Euskarari eta AEKri ere bere lekua ematen diegu gure obran, antzerkia egitea zaila bada, are zailagoa delako euskaraz egitea.

Zer espero duzue publikoak sentitzea antzezlanak ikusita?

Guretzat garrantzitsuena da bakoitzak bere bidaia egitea. Barre egin nahi badute, barre egin dezatela; negar egin nahi badute, baita ere. Sentitu daitezela aske.



03/14
19:00
Coliseo

**PREGUN-
TAMELÓN**
Millán Salcedo



03/15
19:00
Uni Eibar

Euskaraz
KOLAPSOA
Erika Olaizola
& Xanti Agirrezabala

03/17
19:00
Coliseo

52 HERCIOS
Ados Teatro



03/18
19:00
Coliseo

**EL DRAGON
DE ORO**
Sarabela Teatro



03/21
19:00
Coliseo

**JASÓN Y LAS
FURIAS**
Teatro del
Noctámbulo



03/22
19:00
Uni Eibar

**CANTANDO
BAJO LAS
BALAS**
Luna Hiena

03/24
19:00
Coliseo

R&J
Dramática Errante



03/25
19:00
Coliseo

**EGIN BEDI
ZURE NAH-IA**
Dantzerti-ko 4.
mailako ikasleak



03/26
19:00
Coliseo

Euskaraz
ZANBUILA
Lolak kolektiboa

M A R T X O A K
14 - 26
B I T A R T E K O A K



‘II. Errepublikako aldarrikapen-aktaren bila’ jolasa antolatu du Udalak

S.H. Eibarko Udalak herriko historiara hurbiltzeko jolas berezi bat antolatu du: *II. Errepublikako aldarrikapenaren aktaren bila*. Parte-hartzaileek pista eta probak gainditu beharko dituzte herrian zehar, gaia-ekin lotutako istorioan murgilduta. Jarduera apirilaren 18an egingo da, euskaraz, eta familian, kuadrillan edo taldean aritzeko pentsatuta dago (adinak berdin dio). Bi txanda egongo dira (10:30ean eta 17:00etan) eta martxoaren 29ra arte eman daiteke izena, Udalak jarritako online formularioaren bidez.



‘She said’ filmari buruzko zine-forum feminista

S.H. Gaur (barixakua, martxoak 13) *She said* filmari buruzko zine-forum feministaren saioa egingo da Andretxean, Martxoak 8ko lantaldeak antolatuta. Jarduera irekia eta doakoa izango da. Maria Schraderrek zuzendu eta Rebecca Lenkiewicz idatzitako pelikula hau Jodi Kantor eta Megan Twohey erreportariaren 2019ko lanean oinarrituta dago. New York Times-eko bi kazetari estatubatuarrek, Harvey Weinsteinek egindako emakumeen aurkako abusu eta jokabide sexual desagokiaren istorioa kaleratu zuten.



Haurrentzat tailerrak Aste Santuko oporretarako

S.H. Eibarko Udalak Aste Santuko oporraldirako haurrentzako hainbat tailer antolatu ditu. Jarduerak 4 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzenduta daude, eta aurrematrikula egiteko epea martxoaren 13tik 22ra egongo da zabalik. Izen-ematea online egin beharko da.

Haur Hezkuntzako (2020 eta 2021ean jaiotakoak) umeentzat jarduerak bi tokitan egingo dituzte: Jazinto Olabe Ludotekan eta Errebal Plazan. Bi txanda izango dira: lehenengoa martxoaren 30ean, 31n eta apirilaren 1ean, eta bigarrena apirilaren 7tik 10era. Bi kasuetan, ordutegia 09:30etik 13:30era izango da. Bestalde, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleentzat *Portalean Aisialdia* izeneko jarduera antolatu dute Portalea kultur etxeko hirugarren solairuan. Kasu honetan ere bi txanda izango dira: martxoaren 30etik apirilaren 1era bitartekoa, eta apirilaren 7tik 10era artekoa, goizeko 09:30etik 13:30era. Tailerren prezioa 15 eurokoa izango da martxoaren 30, 31 eta apirilaren 1eko txandarako, eta 20 eurokoa apirilaren 7tik 10era egingo den txandarako. Aurrematrikula egiteko, Udalak prestatu duen formulario elektronikoa bete beharko da.

Maria Devesak bere poesia-liburu berria aurkeztuko du Portalean

S.H. Martxoaren 24an (martitzena) aurkeztuko du Maria Devesa Garciak bere poema liburua, *En el fondo de las aguas*, 18:30ean Portalean (ikastaro gelan). Liburu honetan bere bizipoza, itzaropena, testigantza mingarria, salaketa gogorra eta gerra eta genero indarkeria bezalakoek aurrean duen konpromisoa islatu du.





Bidaia sinfonikoa Eibarko Musika Bandaren eskutik

S.H. Domekan (martxoak 15), 12:30ean, kontzertu berria eskainiko du Eibarko Musika Bandak Coliseo antzokian. Andoni Vazquez zuzendariak esan digunez, “mundu sinfonikora” joko du ikuskizun horretan, askotariko piezak interpretatuta. Hasteko, Ippolitov Iwanoven *Escenas Caucasicas* eskainiko dute. Jarraitzeko, Maurice Ravel Ziburuko konpositorearen *Pavana por una infanta difunta*, “oso intimista eta optimista” den pieza joko dute. Gero, Igor Stravinskyren *‘Consagración de la primavera’* entzun ahal izango dugu. “Jatorrian balleta da, baina bere momentuan den-denarekin apurto zuen pieza da eta uste dugu esperimendu ona izango dela bandarentzat zein publikoarentzat”, dio zuzendariak. Eta amaitzeko, Tschaiowskyren *‘El lago de los cisnes’* joko dute. Sarrerak Kutxabank bitartez edo Coliseo antzokiko leihatilan eskuratu ahal izango dira (dohainik).

Ponchielliren ‘La Gioconda’ operaren proiektzioarako sarrerak

S.H. Gaur hasiko dira *La Gioconda* operaren proiektzioarako sarrerak saltzen, Coliseoko leihatilan zein Kutxabank-en bitartez. Amilcare Ponchielliren lanaren proiektzioa martxoaren 20an izango da, 19:30ean, eta Napoliko (Italia) San Carlo antzokian egindako kontzertuaren grabazioa eskainiko dute, Anna Netrebko eta Jonas Kaufmann biltzen dituen izarrez beteriko aktore-zerrendarekin.



Kaparrak eta Leire Martinez ariko dira San Juan jaietan

S.H. Jon Iraola Eibarko alkateak aurtengo San Juan jaietako bi kontzertu nagusiak iragarri ditu sare sozialen bidez. Iragarpenaren arabera, Kaparrak taldeak eta Leire Martinez abeslariak eskainiko dituzte jaialdiko emanaldi nagusiak. Kontzertuen egitarauari dagokionez, Kaparrak taldea ekainaren 19an igoko da oholtzara, eta hurrengo egunean, ekainaren 20an, Leire Martinez abeslariak eskainiko du bere kontzertua.

Kaparrak Aretxabaletan 2023an sortutako musika taldea da, runba estiloko doinu dantzagarriak oinarri dituen. Taldea lagun kuadrilla batek sortu zuen, hasieran Los Delinquentes taldearen abestiak bertsionatzeko asmoz, eta gero bere kantu propioak sortzen hasi zen. Gazte giroan oihartzun handia lortu dute, eta kontzertuetan giro indartsua sortzen duten talde horietakoa da.

Leire Martinez abeslari donostiarra da, urte luzez La Oreja de Van Gogh taldeko ahotsa izan dena. Pop estiloko kantu ezagun askoren interpretatzaile izan da, eta bere ahots bereizgarriak arrasto handia utzi du estatuko musikagintzan. Momentuz, ez dute kontzertuen inguruko xehetasun gehiago eman, baina alkateak aurreratu du laster jakinaraziko dituztela jaietako egitarau osoaren eta gainerako ekitaldien berri.

‘Sexualitatea eta zahartzaroa’ hitzaldia antolatu du Andretxeak

S.H. Martxoaren 24an (martitzena) *Sexualitatea eta zahartzaroa* hitzaldia eskainiko dute Andretxean, 18:00etan. AndretxeaSex zerbitzuaren eskutik egingo den jarduerak hau herritar guztiei zuzenduta dago eta adinekoen sexualitatearekin lotutako mitoetan sakonduko dute. Doakoa eta ele bitan izango da.

<https://eibarbhi.hezkuntza.net/eu/>



Jardiñeta, 3B
943 89 92 62

BATXILERGOA

AURREMATRIKULA

Martxoaren 16tik 27ra

ATE IREKIAK: Martxoak 17

ERRAZAGOA

			8	7	6	3	4	2
					5			
					2	8	5	9
		8		1				3
	5	3				4	7	
	7		2		8	6	3	
4			3	6	1	9		
8				5			2	

SUDOKUA

4	2	1	7	5	6	9	3	8
7	8	6	1	1	9	3	2	4
5	3	9	8	4	2	2	1	7
1	1	7	6	8	9	3	5	2
3	9	2	4	1	5	8	6	7
6	5	8	2	3	7	4	9	1
9	1	7	1	5	6	4	2	8
8	6	8	3	2	1	7	4	9
2	4	2	3	9	8	1	6	5

4	2	3	8	7	1	5	6	9
8	1	9	5	2	6	3	7	4
6	7	5	3	4	2	8	1	9
7	3	2	4	5	9	8	1	6
1	9	6	2	3	8	7	5	4
5	8	4	6	1	7	9	3	2
9	4	7	1	8	5	6	2	3
3	6	8	7	4	2	1	9	5
2	5	1	9	6	3	4	7	8

ZAILAGOA

	7			9			5	2
3		9		8				
			7		9	4		
	5			3		9		
		8	6	5			3	7
	8	2				5	7	
	4			2		6		8
6			1		3			4

GURUTZEGRAMA



ANIMALIAK

Beherantz

- 1. Itsasoko animalia handiena
- 2. Hitzak errepikatzen dituen
- 3. Gaitza asko gustatzen ziona
- 4. Txanogorriburen armamona jan zuena
- 5. Pertsonen laguntzina
- 7. Zortzi hunka dituen
- 8. Txerriak ematen duena

Ezkerretik eskuinera

- 2. Oihaneko eregea
- 3. Lurmetik arastakaz dabilena
- 5. Hegari egiten duena
- 6. Oso astiro ibiltzen dena
- 9. Sudurrean adar handia duena
- 10. Nori pisatzen dio tronpak?
- 11. Salto egiten duena
- 12. Esnea ematen duena
- 13. Saguen bila joaten dena



Martxoak 13 - Martxoak 26

BARIXAKUA 13

INCIBE ROADSHOW-A

09:00/14:00 eta **16:30/19:30**
Herritarrak zibersegurtasunean gaitzeko kamioia. Txaltxa Zelai.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Haurrentzat jolasak, doan. ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Urkizuko parkea.

MARTXOAK 8

18:30 Zine-forum feminista: "She said". Sarrera librea. Portalea.

HERRITU

19:00/21:00 Gure Eskuren Herritu dinamikaren mahaia.

MUSIKA

20:30 Olaia eta Amaia (akustikoa). Guridi taberna.

ZAPATUA 14

INCIBE ROADSHOW-A

11:00/15:00 eta **16:00/20:00**
Herritarrak zibersegurtasunean gaitzeko kamioia. Txaltxa Zelai.

MARTXOAK 8

11:00/13:00 Antzerki laboretegi feminista, Aitziber Eguzkiza Samosen eskutik. Andretxea.

ZAPOREAK

12:30/15:00 Tuper solidarioa, Debabarreneko Zaporeak erronka amaitzeko. Menua: oilaskoa arrozarekin eta fruta ale bat (5 euro). Rifaren zozketa eta Eibarko talde ezberdinen emanaldiak. Errebal Plazia.

DOMEKA 15

ZUHAITZ EGUNA

08:30 Lehen topagunea: Eibarko Klub Deportiboa. Bigarren topagunea: Ixua (aparkalekua).

MARTXOAK 8

10:00/13:00 Emakumeentzako mendi-ibilaldia eta topaketa. Eibarko Klub Deportiboarekin elkarlanean. Eibarko Klub Deportibotik abiatuta.

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Coliseo.

ASTELEHENA 16

KORRIKA KULTURALA

19:00 "Barry Barrez" umore bakarriketa. Beleko taberna.

MARTITZENA 17

GREBA OROKORRA

12:30 Manifestazioa: "Gutxieneko soldata hemen erabaki. SMI 1.500 euro". Untzaga.

EGUAZTENA 18

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiazko borondateei buruzko informazio-zerbitzua, Ikastenen eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

EGUENA 19

MARTXOAK 8

18:00 "Zaintzaren taupada" erakusketaren aurkezpena, Merlin Medina Acostaren eskutik. Arrate Kultur Elkarte.

BARIXAKUA 20

TOPAKETA

Uni Encounter informatika eta teknologia topaketa. Uni Eibar-Ermua.

OPERA

19:30 "La Gioconda" operaren proiektzioa. Coliseo.

ZAPATUA 21

LORE ETA LANDARE AZOKA

10:00/14:30 Lore, Landare eta Zuhaitz XVI. Azoka. **11:30** Haurrentzako tailerrak. Errebal Plazia.

TOPAKETA

Uni Encounter informatika eta teknologia topaketa. Uni Eibar-Ermua.

DOMEKA 22

TOPAKETA

Uni Encounter informatika eta teknologia topaketa. Uni Eibar-Ermua.

MANIFESTAZIOA

12:00 Palestinaren askatasunaren alde. Antolatzailea: Eibar Palestina Herri Ekimena. Untzaga.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat jolasteko gune irekia. Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 23

KANTU-SAIOA

19:00 "Euskal kanta tradizionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.

MARTITZENA 24

MARTXOAK 8

17:00/19:00 Emakumeak Historia Egiten bideo-forum saioa: "Nevenka". Dinamizatzailea: Patricia Perex Coto. Sarrera librea. Andretxea.

HITZALDIA

18:00 "Sexualitatea eta zahartzarora" (Andretxea-Sex). Elebitan. Sarrera librea eta doan. Andretxea.

LIBURU-AURKEZPENA

18:30 "En el fondo de las aguas", Maria Devesaren poesia-liburuaren aurkezpena. Portalea (ikastaro gela).

URTEKO BATZARRA

19:00 ...eta kitto! Euskara Elkartearen urteko batzarra (bigarren deialdia 19:30ean). ...eta kitto! (Urkizu, 11 solairuartea)

EGUENA 26

KORRIKA KULTURALA

15:15 Korrika Txikia Eibarraren. 19:00 Eguen Zuri argazki lehiaketako erakusketak eta hitzaldia. Topaleku.

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emateentzat. Untzaga jubilatutako etxea.

ZINEA COLISEO



“El agente secreto”
THRILLER. DRAMA
2025/Brasil/158’
Zuzendaria: Kleber Mendonça Filho
Aktoreak: Wagner Moura, Alice Carvalho, Gabriel Leone, Udo Kier
70eko hamarkada. Brasilgo

1 ARETOA

- 14an: 19:15, 22:30
- 15ean: 16:30, 20:00
- 16an: 19:30



“Torrente presidente”
KOMEDIA
2026/Espainia/102’
Zuzendaria: Santiago Segura
Aktoreak: Santiago Segura
Komedia beltza. Politika. Sekuela

2 ARETOA

- 14an: 17:00, 19:45
- 15ean: 17:00

ANTZOKIA

- 14an: 22:30
- 15ean: 20:00
- 16an: 19:30



“Los pecadores”
DRAMA. THRILLERRA
2025/AEB/137’
Zuzendaria: Ryan Coogler
Aktoreak: SMichael B. Jordan, Hailee Steinfeld, Miles Caton
Road movie. Desagertzeak. Musika

2 ARETOA

- 14an: 22:30
- 15ean: 20:00
- 16an: 19:30



“Chirp, Honey Hillseko ikertzailea”
ANIMAZIOA. ABENTURAK
2022/Errusia/85’
Zuzendaria: Grigoriy Vozhakin
Umeentzako zinema. Lapurretak

1 ARETOA

- 14an: 17:00

ANTZOKIA

- 15ean: 17:00

FUNEUSKADI

Grupo Asástra

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA

Funeruskadi

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Oñate

TANATORIO CREMATÓRIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951

www.funeuskadi.com

Eibar:

Otaola, 27

Elgoibar:

Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa:

Bidebarrieta, 20

Ermuako bulegoa:

Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao

Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

ESKERTZAK ETA URTEURRENAK

Urkizu, 11 - solairuarte

publizitatea@etakitto.eus

688 62 76 89

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **IBAI!**
Domekan 8 urte bete zenduaz en eta. Espero zoragarri pasauko zenduala. Musu pila famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!!



Zorionak aitatz/aitita **JOXE!** Ez dago munduan zu modukorik! Askok maitte zaittugu, jarraitu holan!



Zorionak **NIKO!**
Martxuaren 11n 6 urte bete dittuzu eta, txapeldun! Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak **ISABELLA!**
Eguaztenean 13 urte bete zenduaz en eta. Musu haundixa famelixa guztixaren partez. Maite zaittugu.



Zorionak **MARCO!**
Hilaren 18xan 9 urte betetzen dozuz eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **NILE!**
Martxuaren 11n 6 urte bete zenduaz en eta! Askok maite zaittugu!



Zorionak **PEIO!**
Domekan bi urte egingo dittuzu. Irribarretsu eta ausarta, indar haundiz beti aurrera! Maite zaittugu. Zure famelixa.



Zorionak **LUCA!**
Aurreko zapatuan urte potolo bat egin zendualako. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak **AITA!** 60. urteurrenetik 40. etik baino gertuago zaude!!! Ane ta Enekon partez ;)



Zorionak **UXUE!**
Hilaren 18xan 3 urte bete dozuz eta. Patxo potolo bat etxeko guztien partez. Maite zaittugu.



**M^a Encarnacion
Gonzalez Murillo**
Encarni

2026/03/05

**“Indar eta kemenez
betetako ama, zuk
hasitako bideari
jarraituko diogu beti”**

**BETIKO GURE BIHOTZETAN
- ETXEOAK -**



**Walter
Tuzzeo**

2. URTEURRENA
2024/03/18

**“Infinito
maite
zaittugu.
Ti amiamo
infinito”**

- ZURE FAMILIA -

Iragarki laburrak



943 20 67 76
aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa
2. MOTORRA
2.1. Salgai
3. LOKALAK
3.1. Salgai
3.2. Errentan
3.3. Konpartitzeko
4. LANA
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila
5. IRAKASKUNTZA
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak
6. DENETARIK
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA
1.2. Errentan
• Emakumeak pisu edo logela bat alokatuko luke. 742099074.

3. LOKALAK
3.1. Salgai
• Garajea salgai Urkizu Pasea- lekuko 9 zenbakian. 25 m². 659584892.
• Trasteroa salgai. 5 m². Arratebi- den. 666769414.

3.2. Errentan
• Ipuruan, batez ere J.A. Mogel inguruan, garajea alokairuan hartuko nuke. 646369330.
3.3. Konpartitzeko
• Laster Eibarren zabalduko den tailer/coworking bat parte- katzeko kide bila dabil artista plastikoa. Mota guztietako profilak ongi etorriak dira. 658 87 23 97

4. LANA
4.1. Lan bila
• Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna be- zala, baita egunez edota gauez ere. Ziurtagiri soziosanitarioa- rekin. 632292662.
• Emakume arduratsua eskain- tzen da nagusiak zaintzeko, orduka. Esperientziarekin eta ziurtagiri soziosanitarioarekin. 602800266.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak edota umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako... Titulu- arekin. 633101852.
• Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziur- tagiri soziosanitarioarekin. 632624579.
• Emakumea eskaintzen da

orduka nagusiak zaindu edota garbiketa lanetarako. Ziur- tagiri soziosanitarioarekin. 605597134.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak zaintzeko, interna beza- la edota orduka. Baita garbika- ta lanetarako ere. 614943897.
• Mekanika ingeniaria eskain- tzen da edozein motatako lanak burutzeko: Igeltseritza, iturgintza, elektrizitatea, pintu- ra... 641838914.
• Emakumea eskaintzen da in- terna bezala lan egiteko, nagu- siak zaintzeko edota garbiketa lanetarako. Edozein ordu eta egunetan. 643860541.
• Gizona eskaintzen da tin- dategiko laguntzaile gisa, ostalaritzako laguntzaile gisa edota garbiketa lanak egiteko. 602339328.
• Emakumea eskaintzen da in- terna bezala lan egiteko edo orduka, ume zein nagusiak zaintzeko, edota garbiketa la- netarako. 613314603.
• Neska eskaintzen da nagusiak eta umeak zaindu, garbiketa lanetarako... 632119320.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak eta umeak zaindu, gar- biketa lanetarako... 643342975.
• Emakumea eskaintzen da na- gusiak eta umeak zaindu, gar- biketa lanetarako... 632642320.
• Emakumea eskaintzen da gar- biketa, supermerkatuko hor- nitzaila, sukalde laguntzaile edo margoketa lanak egiteko. 742099074.
• Tituludun erizaina eskaintzen da pazienteak zaintzeko, mu- gikortasun arazoak izan edo ez. Baita umeak zaintzeko ere. 641834341.

4.2. Langile bila
• Estetizista eta fisioterapeuta behar dira Eibarko ileapain- degi batean. Lan giro ona. 943208125.
• Sukaldaria behar da Debaba- rreneko jatetxe baterako. Espe- rientziarekin eta kotxearekin. Curriculuma bidali whatsapp- pe: 670672515.

5. IRAKASKUNTZA
5.2. Eskaintzak
• DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
• Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko tal- deak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
• DBH, Batxilergo eta Uniber- tsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko kla- seak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK
6.2. Eman
• Ohe artikulatua salgai prezio onean. 618022434
• Zortzi hilabeteko 'huskey siberiarra' oparitzen da. 613 543774.
• Egoera oso onean dauden bi altzari oparitzen dira: 80 cm-ko zabalera eta 6 kajoiko egu- rrezko sinfonierria. 70 cm-ko zabalera eta 2 m inguruko al- tueradun egurrezko armairua. 658715978.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
 - | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
 - | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
 - | Mekatronika Industrialia
 - | Automatizazio eta Robotika Industrialia
 - | Energia Berriztagarriak **BERRIA**
- Espezializazio ikastaroa**
- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
 - | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



ATE IREKIAK



11:00etan

Martxoak 28
Maiatzak 9

664 298 683



UNI
EIBAR
ERMUA

ATE IREKIAK

24 MARTXOAK ⌚ **17:00**

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA



MERKATARITZA



ADMINISTRATIOA
ETA
KUDEAKETA



JARDUERA
FISIKOAK
ETA KIROLOK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN
EDO DEITU

📞 **943 89 92 11**

www.uni.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBERNUO VASCO
HEZKUNTZA TALdea
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



Otaola Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa

943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus

www.uni.eus

@uni.eus

Kiaren gama Hibridoa eta Elektrikoa.

Modelo bat zalantza bakoitzerako.

Martxoaren 5etik 20ra, deskontu bereziekin.

10.100 €* rainoko deskontuak finantzatzuz gero.
Gainera, Auto+Planaren laguntzez balia zaitezke.



Movement that inspires

Zalantzak dituztenei: lasai. Normala da, teknologia gure bizitzak aldatzen ari da-eta. Berri ona da Kiaren Gama Hibridoa eta Elektrikoa zuri laguntzeko etorri direla, zalantza mota bakoitza argitzeko modelo bat eskaintzen dizulako. Eta, orain, 10.100 €-rainoko deskontuarekin, Auto+ Planaren laguntzei gehituta. Ez izan zalantzarik, zatoz ezagutzera.



Apalategi, 1 EIBAR
943 70 70 33
gruponaiacar.com

HEV: CO2 isuri konbinatuak WLTP (g/km): 102-145. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,5-6,4. EV: CO2 isuri konbinatuak WLTP (g/km): 0. WLTP kontsumo konbinatua (kWh/100km): 14,9 - 16,2. *Deskontuaren zenbatekoa modeloaren eta bertsioaren arabera izango da. 10.100 €-ko deskontua Kia EV6 f/l Air RWD MY26 modelorako, ibilgailuaren prezioaren gainean, BEZA, sustapen-deskontuak, finantzatzeagatik deskontu eta fabrikatzaileak Energia Aurrezteko Ziurtagirien Sistemari (CAE) egindako ekarpena barne. Erabilitako ibilgailu bat entregatzen duten eta Banco Cetelem SAUrekin finantzaketa-kontratu berri bat Flexiplan kanpainaren bidez formalizatzen duten bezero partikularrei aplikatu beharreko eskaintza, finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 17.000 € edo finantzaketa-kontratua amaitzean ibilgailuak izango duen balio bermatua baino handiagoa bada. Gutxienez 36 hilabeteko epearekin. Eta gutxienez 36 hilabeteko permanentziarekin. Eskaintza hau ez da bateragarria beste finantza eskaintza batzuekin, eta 2026/03/20ra arte balio du. Kreditu-erakundeak onartu beharreko finantzaketa. Erakusten den modeloa ez dator bat eskaintzaekin. ** Mugikortasun Elektrikorako Pizgarrien Programaren (Auto+ Plana) behin betiko onespeneraren eta funtsen eskuragarritasunaren mende dagoen laguntza. Kontsultatu programari buruzko informazioa hemen: www.mintur.gob.es.

